

Arrasate

P R E S S

1996ko
Apirilak 26
317. zenb.



Goitibeherak
prestatzen
San Juanetarako



BERRIAK: Aurrekontu barik oraïndik • **KULTURA:** Elena Atienza



Banatzaileak:

CF
CARERA

Sukalde altzariak

FAGOR

aspes

DeLonghi

BALTZARIAK
Berango

**SUKALDERAKO
EKIPAMENDU
OSOA**

- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak

**5 URTEKO
GARANTIAZ**

ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea

ARRASATE Tfnoa: 79 01 92

CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

ANTOLATZEN DU:

- **UDAKO IKASTAROAK**, Ingalaterran, Irlandan, USAn, familia batekin elkarbizitzen. 13tik 18ra bitarteko gazteentzat.
- **LAN ESPERIENTZIA**, Ingalaterran, enpresatan, lanean eta familia batekin elkarbizitzen.
- **UDALEKUAK**, 10 edo 15 egunekoak, Brinkolan. 11tik 15era bitarteko umeentzat.

**KLASEAN IKASITAKOAK
PRAKTIKARA ERAMATEKO
MODURIK ONENA.**

**DENBORAZ
ZABILTZA!
Laister epea
itxiko da!**

Informazio gehiagorako zatoz gure bulegoetara, Araba Etorbideko 4. zenbakira edo 79 65 54 telefonora deitu.

Etorkizuneko ekonomia

Munduko ekonomiaren egoera batek imajina dezakeen paradoxi-koena da, Asia inguruan hazkuntza eta efizientzia anguloak erakusten dituen bitartean Europa aldean mugikortasun eza da nagusi, eta ez dezagun ezer esan Afrikako herrialdeez.

Globalizazioaren krisia ireki da - ez ezustean, baina bai derrepentean maila handiko teknologia eta soldata txikiak edoeta lan mugikortasuna integratzea, Estatu Batuetan bezala, jakin izan duten herrialdeak sarrituz, eta langabeziarekin zigortuz -materialki gutxienez- ekonomia-aren desfrontalizazioak dakarren superliberalismoaren eskaera berrietara egokitzen jakin ez duten herrialde europarrak.

Horrekin guztiarekin "Ongizate Estatuaren" krisia gogortu egiten da eta gizarte prestazioek porrot egiten dute, eta gogortu egiten da langabezi izurrite modernoari aurre egiteko beharra zeinek -bide honetatik segituz gero- edozein unetan eztanda soziala egin dezakeen.

Baina -eta hemen dator paradoxikoena- herrialde asiarrak hazten ari dira Estatu Batuak bezala (10 urtetan 30 milioi lanpostu sortzeko gai izan dira, 8 azken 3 urteotan; Europa 6 milioiak gainditzeko gauza izan ez denean). Ekonomia globalaren ikuspuntutik lana ez doa beherantz gorantz baizik, baina Europa mailan, beherantz doa eta arriskuan jartzen du etorkizuneko lehiakortasun gaitasuna.

Esaten da enplegu amerikarra malgua dela eta lanak kualifikazio gabekoak, baina azken datok erakusten dute lanpostu horien %60a profesional eta teknikoak direla, eta kualifikazio maila handia batekin lotuta egoteaz gain nazioarteko ekonomiarekin harremana dutela.

Baina enplegu bersortze fenomeno bortitz honek zerikusi handia dauka lanaren mekanismoen flexibilitate osoarekin, bai denborari dagokionez eta baita ordainketen maila, mugikortasuna etabarri

dagokionez, horri esker, segregazio sozial handiko ekonomia lehiakor eta dinamiko bihurtzen da eta.

Zehatzasun gehiagoz edo gutxiagoz hori da etorkizuneko ekonomia, atzerapen gehiagoz edo gutxiagoz, baina ekonomia globalizatuaren ustezko ondasunari sor zaiona da.

Eta horren aurrean, zer egin? hori da politikari eta pentsalarien mahai gainean dagoen arazo hahdiena. Argi dago fenomenologia berri hau azaltzeko gaitasuna duen teoria globalizataile bat falta dela, mundua etorkizun global berrian antolatze-ko neurri geoekonomiko eta geopolitikoak hartzeko gaitasuna izango duena. Egiten ez bada seguruen indartsuenaren legeak aginduko du, eta pentsatzekoa da gizarte arloan aldaketa gogorak etorriko direla, behintzat "Ongizate Estatuaren" gozokiak hartzeraz ohitu diren herrialdeetan.

Momentuz borroka zabal bat dago, ez herrialdeen artean, baizik eta gune eta kontinente osoen artean, bakoitza ahal duen eta efizientzia lehiakortasun maila gorenena hartzen ari da, mundu mailako merkatuan txoko bat eskuratzeko.

Baina ez hori bakarrik, ekonomia globala multinazionalen berezko ekonomia naturala da, baina hauek mugitu ahala mugitzen dira jatorrizko beraien banatzaileak, eta horrek erroka bikoitza jartzen du mahai gainean: berez enpresa global direnak ez daitezela multinazional baka-rrak izan, enpresa ertain eta txikiak ere multinazional izan behar dutela, multinazionalak ezartzen diren herrialdeetan ezarri. Horrekin bada, enpresa txiki eta ertainen globalizazio aroan sartzen gara -handiak bezala- erakargarritasun efektuagatik. Oinarrian paradoxa bikoitz baten aurrean gaude: harreman sozialak arintzea maila superliberalean, eta enpresa minimultina-zional izaera hartzea globalizazio eredu-aren babesean.

JESUS LARRAÑAGA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Majder Egües. **Publikatzailea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketaria:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Legue-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatuta. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkiak: Karlos Corbella

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

.....

Apirilak 23: Liburu bat eta kilo erdi antxoa

Shakespeare eta Cervantes hil zireneko eguna aukeratua izan da liburuaren eguna aldarrikatzeko. Udal liburutegiak irakurketa publikoaren motorra den aldetik, 3 animazio ekintza antolatu ditu honen inguruan: Irratsaio berezi bat Arrasate Irratia eta Hire eta Gora-Behera liburudenden laguntzarekin (23an), "El guardián de las palabras" izeneko bideo emanaldia Monterronen (27an) eta liburu eta liburutegiaren presentzia herrian indartzeko ekimena (24 eta 26an).

Aste honetan azokara hurbildu zaretenok, letxuga, sagar eta kalabazinez inguraturik liburutegi-postu bat aurkitu zenuten bertan. Liburu goxoak, garratzak edo afrodisiakoak ispirituak elikatzeke edo eta udal liburutegian aurki daitekeen beste fondoetako muestra bat: aldizkariak, egunkariak, bideoak, J. Letonaren artxiboa eta tokiko bilduma.

Monterron Jaure-

gia ez da dagoeneko kontearen etxea, baina hankapuntetan sarri asko bisitatzen du bertako liburutegia herriko jendeak. Azken urte hauetan lan handia egin dugu liburutegia modernizatzen eta zerbitzu berriak zabaltzen (informatizazioa, bideoteka, dokumentazio zerbitzua, bisita gidatuak, etab...), baina badakigu ezezagupen handia dagoela liburutegien funtzioez eta hori argitzea da guk daukagun hurrengo erronka: Herriaren gozamenarako eta formakuntzarako baliabideak eskaini eta ondare dokumentala nahiz memoria historikoan ikertzeko zabalkuntza lan bat eginez, benetako informazio-zentru irekia den liburutegia eza-gutarazi.

Ez dezazun utzi, Mari Errauskini gertatu zitzaiona gure liburutegiari gertatzea, dantzaldiaren momentu interesanteanean bere bizitza mixerablara bueltatu behar izatea.

Zorionak irakurle guztiei eta ez direnei abenturan sartzeko gonbitea.

(ZUEN) BIBLIOTEKARIAK

Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datoren gutunak ez dela argitaratuko.

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

LANPOSTU-ESKAINNTZA UDALTZAINA

Arrasateko Udalak, **udaltzain** plaza bat modu finkoan betetzeko, eta beste hainbat aldi baterako kontratatu ahal izateko, hautaketa prozesu bat ireki du.

Deialdia arautzen duten **oinarriak** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, apirilaren 22an, 77 zenbakian argitaratu dira.

Instantziak aurkezteko epea, maiatzaren 13an, astelehena, arratsaldeko 6.30etan, itxiko da.

Oharra: Aurreko deialdia (GAO, 1995ko 216 zkia.) izena eman zutenek ez dute berriz inskribatu beharrik.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

Etorkizuneko ekonomia

Munduko ekonomiaren egoera batek imajina dezakeen paradoxi-koena da, Asia inguruan hazkuntza eta efizientzia anguloak erakusten dituen bitartean Europa aldean mugikortasun eza da nagusi, eta ez dezagun ezer esan Afrikako herrialdeez.

Globalizazioaren krisia ireki da - ez ezustean, baina bai derrepentean maila handiko teknologia eta soldata txikiak edoeta lan mugikortasuna integratzea, Estatu Batuetan bezala, jakin izan duten herrialdeak sarrituz, eta langabeziarekin zigortuz -materialki gutxienez- ekonomia-aren desfrontalizazioak dakarren superliberalismoaren eskaera berrietara egokitzen jakin ez duten herrialde europarrak.

Horrekin guztiarekin "Ongizate Estatuaren" krisia gogortu egiten da eta gizarte prestazioek porrot egiten dute, eta gogortu egiten da langabezi izurrite modernoari aurre egiteko beharra zeinek - bide honetatik segituz gero- edozein unetan eztanda soziala egin dezakeen.

Baina -eta hemen dator paradoxikoena- herrialde asiarrak hazten ari dira Estatu Batuak bezala (10 urtetan 30 milioi lanpostu sortzeko gai izan dira, 8 azken 3 urteotan; Europa 6 milioiak gainditzeko gauza izan ez denean). Ekonomia globalaren ikuspuntutik lana ez doa beherantz gorantz baizik, baina Europa mailan, beherantz doa eta arriskuan jartzen du etorkizuneko lehiakortasun gaitasuna.

Esaten da enplegu amerikarra mailua dela eta lanak kualifikazio gabekoak, baina azken datuak erakusten dute lanpostu horien %60a profesional eta teknikoak direla, eta kualifikazio maila handia batekin lotuta egoteaz gain nazioarteko ekonomiarekin harremana dutela.

Baina enplegu bersortze fenomeno bortitz honek zerikusi handia dauka lanaren mekanismoen flexibilitate osoarekin, bai denborari dagokionez eta baita ordainketen maila, mugikortasuna etabari

dagokionez, horri esker segregazio sozial handiko ekonomia lehiakor eta dinamikoa bihurtzen da eta.

Zehaztasun gehiagoz edo gutxiagoz hori da etorkizuneko ekonomia, atzerapen gehiagoz edo gutxiagoz, baina ekonomia globalizatuaren ustezko ondasunari sor zaiona da.

Eta horren aurrean, zer egin? hori da politikari eta pentsalarien mahai gainean dagoen arazo hahdiena. Argi dago fenomenologia berri hau azaltzeko gaitasuna duen teoria globalizatzaile bat falta dela, mundua etorkizun global berrian antolatze-ko neurri geoekonomiko eta geopolitikoak hartzeko gaitasuna izango duena. Egiten ez bada seguruen indartsuenaren legeak aginduko du, eta pentsatzekoa da gizarte arloan aldaketa gogorak etorriko direla, behintzat "Ongizate Estatuaren" gozokiak hartzera ohitu diren herrialdeetan.

Momentuz borroka zabal bat dago, ez herrialdeen artean, baizik eta gune eta kontinente osoen artean, bakoitza ahal duen eta efizientzia lehiakortasun maila gorenena hartzen ari da, mundu mailako merkatuan txoko bat eskuratzeko.

Baina ez hori bakarrik, ekonomia globala multinazionalen berezko ekonomia naturala da, baina hauek mugitu ahala mugitzen dira jatorrizko beraien banatzaileak, eta horrek erronka bikoitza jartzen du mahai gainean: berez enpresa global direnak ez daitezke multinazional bakarrik izan, enpresa ertain eta txikiak ere multinazional izan behar dutela, multinazionalak ezartzen diren herrialdeetan ezarri. Horrekin bada, enpresa txiki eta ertainen globalizazio aroan sartzen gara -handiak bezala- erakargarritasun efektuagatik. Oinarrian paradoxa bikoitz baten aurrean gaude: harreman sozialak arintzea maila superliberalean, eta enpresa minimultinazional izaera hartzea globalizazio ereduaren babesean.

JESUS LARRAÑAGA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Berto eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatuta. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkiak: Karlos Corbella

I
R
T
A
B
E
R
N
A
T
I

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altxariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

.....

Apirilak 23: Liburu bat eta kilo erdi antxo

Shakespeare eta Cervantes hil zireneko eguna aukeratua izan da liburuaren eguna aldarrikatzeko. Udal liburutegiak irakurketa publikoaren motorra den aldetik, 3 animazio ekintza antolatu ditu honen inguruan: Irratsaio berezi bat Arrasate Irratia eta Hire eta Gora-Behera liburudenden laguntzarekin (23an), "El guardián de las palabras" izeneko bideo emanaldia Monterronen (27an) eta liburu eta liburutegiaren presentzia herrian indartzeko ekimena (24 eta 26an).

Aste honetan azokara hurbildu zaretenok, letxuga, sagar eta kalabazinez inguraturik liburutegi-postu bat aurkitu zenuten bertan. Liburu goxoak, garratzak edo afrodisiakoak ispirituak elikatzeo edo eta udal liburutegian aurki daitekeen beste fondoetako muestra bat: aldizkariak, egunkariak, bideoak, J. Letonaren artxiboa eta tokiko bilduma.

Monterron Jaure-

gia ez da dagoeneko kontearen etxea, baina hankapuntetan sarri asko bisitatzen du bertako liburutegia herriko jendeak. Azken urte hauetan lan handia egin dugu liburutegia modernizatzen eta zerbitzu berriak zabaltzen (informatizazioa, bideoteka, dokumentazio zerbitzua, bisita gidatuak, etab...), baina badakigu ezezagupen handia dagoela liburutegien funtzioez eta hori argitzea da guk daukagun hurrengo erronka: Herriaren gozamenerako eta formakuntzarako baliabideak eskaini eta ondare dokumentala nahiz memoria historikoan ikertzeko zabalkuntza lan bat eginez, benetako informazio-zentru irekia den liburutegia ezaugarazi.

Ez dezazun utzi, Mari Errauskini gertatu zitzaiona gure liburutegiari gertatzea, dantzaldiaren momentu interesanteanean bere bizitza mixerablara bueltatu behar izatea.

Zorionak irakurle guztiei eta ez direnei abenturan sartzeko gonbitea.

(ZUEN) BIBLIOTEKARIAK

Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datoren gutunik ez dela argitaratuko.

**Altzariak
Diseinua
Apainketa**

**M
ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

**LANPOSTU-ESKAINNTZA
UDALTZAINA**

Arrasateko Udalak, **udaltzain** plaza bat modu finkoan betetzeko, eta beste hainbat aldi baterako kontratatatu ahal izateko, hautaketa prozesu bat ireki du.

Deialdia arautzen duten **oinarriak** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, apirilaren 22an, 77 zenbakian argitaratu dira.

Instantziak aurkezteko epea, maiatzaren 13an, astelehena, arratsaldeko 6.30etan, itxiko da.

Oharra: Aurreko deialdia (GAO, 1995ko 216 zkia.) izena eman zutenek ez dute berriz inskribatu beharrik.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila

Baduzu liburuak irakurtzeko ohiturarik?



Jose Luis Atxa
(Langabetua)
58 urte

Orain dela urte batzuk irakurtzen nituen baina orain bista nekatzen zait eta ez dut libururik irakurtzen. Lehen "Círculo de Lectores"ko bazkidea nintzen. Rosa Monteroen "Mi amo" liburua gus-tatu zitzaidan asko.



Iker Bermejo
(ikaslea)
11 urte

Liburutegiko bazkidea naiz baina gehien bat ikastolan bidaltzen dizkidaten liburuak irakurtzen ditut. Erderazko "Babatracio" liburua oso gustora irakurri nuen.




Mertxe Montero
(Langilea)
24 urte

Oso liburu gutxi irakurtzen dut eta irakurtzekotan erromantikoak irakurtzen ditut. Ez ditut sekula erosten, lagunek uzten dizkidate. "No sin mi hija" liburua bereziki gogoratzen dut.



Angelines Castellano
(Langilea)
56 urte

Egunkaria, Arrasate Pressa eta aldizkari larrosak irakurtzen ditut baina liburuak oso gutxitan. "Las sandalias del pescador" liburua gogoratzen dut.



Ioseba Larzabal
(Langilea)
32 urte

Irakurtzen ditut baina erderazkoak beti. Ez naiz liburutegiko bazkidea, erosi egiten ditut nahiz eta nahiko garestiak diren. "Enterrad mi corazón" liburua oso ona da.



Aroa Molina
(ikaslea)
17 urte

Bai, irakurtzen ditut baina batez ere eskolan bidaltzen dizkidatenak. Liburutegiko bazkidea ere banaiz. "Bristoloko hilketa" asko gustatu zitzaidan.



Anabel Martinez
(Langilea)
37 urte

Ez dut liburu asko irakurtzen. Gauetan berriz, egunkaria irakurtzen dut. Orain "El hombre que susurraba al oído de los caballos" irakurtzen nago.



Ramon Loiti
(Langilea)
48 urte

Batez ere egunkaria irakurtzen dut. Liburuak irakurtzekotan politikarien bibliografiak irakurtzea gus-tatzen zait eta erosi egiten ditut.

egizabal

poltsak • oinetakoak

Ferrerias, 9
ARRASATE
T9 66 01

Bidekurutzeta, 13
BERGARA
76 12 28

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igualetoia79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76
DYA
 Anzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantziak45 87 44

Udaltaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 26

Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

Larunbata 27

Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.

Igandea 28

Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Astelehena 29

Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

Asteartea 30

Egunez eta gauzez: Ameza. Santamaina.

Asteazkena 1

Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
 Egunez eta gauzez: Estella. Bergara.

Osteguna 2

Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres
 Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara.

26 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Sentido y sensibilidad" 7etan
 eta 10etan.

• **SAN ANDRESKO JAIK**
 6.30etan erraldoi eta buruhan-
 diak. 10.30etan "Talisman"
 taldearekin dantzaldia.
 11.30etan Rock jaialdia
 Maiatzaren bata plazan.

• **JAIALDIA AMAIA ANTZO-
KIAN**
 San Frantzisko Xabier ikastolak
 antolatutako jaialdia arra-
 tsaldeko 7etan Amaia ant-
 zokian. Sarrera dohainik.
 Ines Osinaga eta Naiara
 Okina trikitilariak eman-
 dia eskainiko dute. Ondoren
 8. mailako ikasleek sketch
 batzuk eta "Buruntza azpian
 edo hankaz gorako lurral-
 dea" antzezlanak antzeztuko
 dute.

• **ASANBLADA**
 Asanblada Seberon arratsalde-
 ko 7.30etan Gestorak anto-
 latuta.

**TXATXILIPURDIKO
BEGIRALE IZATEKO**

**Uztailean Txatxilipurdi-
ko begirale moduan
lan egiteko bete
beharreko baldintzak:
18 urte beteak izatea,
euskara ongi menpe-
ratzea, haur eta gaz-
tetxoekin harremanak
izateko gaitasuna.
Izena emateko kurriku-
luma, bi argazki eta
NANaren fotokopia
eraman behar duzue
Txalipurdi elkartera
apirilaren 30a baino
lehen.**

27 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "Sentido y sensibilidad" 5etan,
 7.30etan eta 10etan.

• **AEDKO HIKA IKASTAROA**
 Mondragoeko Hika ikastaroa
 Arabako aterpetxean. AEDk
 antolatuta.

• **MANIFESTAZIOA**
 Antolatzailea: Narvaizako komi-
 teak antolatuta. ELAk eta
 LABek bat egin dute deial-
 diarekin. Egurdiko 12etan,
 Bergaran.

• **SAN ANDRESKO JAIK**
 9etan diana. 10etan futbito eta
 ping pong txapelketak.
 11etan erakusketa Arrasa-
 teko A.I.K.E. irratizaleek anto-
 latuta. 12etan gaztetxoent-
 zat karaokea. 4etan trialsin
 erakusketa. 10.30etan Moby
 Dick taldearekin dantzaldia.
 11etan "El torbellino de Eus-
 kadi" ren emanaldia.

**• HEZKUNTZ PROIEKTUAREN
AURKEZPENA**

San Frantzisko Xabier ikastolak
 Hezkuntz proiektuaren aur-
 kezpena egingo du Gazte-
 luondoko kiroldegian goize-
 ko 11.30etatik 12.30etara.
 Ikasleek 10etan hasita hain-
 bat ekingo izango dute eta
 ordu batura 1'erdietan luntxa
 izango da Ferixalekuko ikas-
 tolan.

• **ENKARTELADA**
 San Andresko Gudari plazan
 ordubeteko enkartelada.
 Gestorak antolatuta.

• **UMEENTZAT FILMEA**
 "El guardian de las palabras"
 Monterron kultur etxean
 arratsaldeko 5etan.

• **PASARELA ANTZERKIA**
 Traspasos eta J.P. taldearen
 Pasarela antzezlanak Amaia
 antzokian gaueko 10.30etan.
 Sarrera 800 pta. eta gazte
 txartelarekin 600 pta.

28 IGANDEA

• **ZINEA**
 "Sentido y sensibilidad" 5etan,
 7.30etan eta 10etan.

• **SAN ANDRESKO JAIK**
 9etan Mountain-bike-eko trabe-
 sia. 11etan sokatira txapel-
 keta. 4etan mus txapelketa.
 5.30etan umeentzat jaial-
 dia. 7etan erraldoi eta
 buruhandiak.

• **MENDI IRTEERA BESAIDE-
REKIN**
 Puerto Lunada eta Las Macho-
 rras-era mendi irteera Besai-
 derekin. Irteera goizeko
 7etan Garibaitik.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Ibilbidea: Arrasate, Oñati, Uda-
 na, Ormaiztegi, Salvatore,
 Ormaiztegi, Oñati eta Arra-
 sate. Guztira 80 kilometro.
 Irteera goizeko 10etan Mon-
 terrondik.

**CARMINA BURANA
ARRASATE IRRATIAN**

**Arrasaten izan zen
Carmina Burana kon-
zertua eskainiko da
Arrasate Irratiko "Zoro
klasikoak" saioan
apirilaren 27an goize-
ko 11etan. Emanaldia-
ren lehen zatia entzu-
teko aukera egongo
da eta bigarrena
hurrengo zapatuan.**

**AUKEAK ANTOLATUTA-
KO KIROL IKASTAROA**

Mantenimenduko gimna-
 sia, 3. adineko gimnasia,
 gutxiko psikikoentzat
 gimnasia, muskulazio gela,
 igeriketa eta aerobic
 ikastaroak Musakolako
 kiroldegian. Informazio
 gehiagorako deitu 79 04 27
 zenbakira.

29 ASTELEHENA

• **ZINEA**
 "Sentido y sensibilidad" 7etan
 9.30etan.

• **HITZALDIA SAN VIATORREN**
 8. maila bukatzen duten ikasle-
 ek ikasketekin jarraitzeko San
 Viator ikastolak eskeintzen
 duen aukerari buruzko hitz-
 zaldia ikasle eta gurasoei
 zuzenduta. Arratsaldeko
 6etan ikastolako Mediatekan.

• **KOTXE KARABANA**
 ELA eta LABek antolatuta. Hasie-
 ra Eskoriatzan, arratsaldeko
 5etan. Bukaera Oñatin arra-
 tsaldeko 7etan.

• **KONTZENTRAZIOA**
 "Euskal Herria Askatu" Iemape-
 an kontzentrazioa Herriko
 plazan arratsaldeko 7.30etan

30 ASTEARTEA

• **ZINEA**
 "Sentidos y sensibilidad" 7etan
 eta 9.30etan.

• **SAN ANDRESKO JAIAK**
 7etan erraldoiak eta buruhandien
 kalejira. 10.30etan Haitzama
 taldearekin dantzaldia.

• **ENKARTELADA**
 Senideaken enkartelada Sebe-
 ron arratsaldeko 7etan.

1 ASTEAZKENA

• **LANGILEAREN EGUNA.**
 • **LAB eta ELA-ren MANIFES-
 TAZIOA IRUÑEAN**

Arrasateetik autobusa gaizeko
 10etan Arbolapetatik LABek
 antolatuta. Itzulera arratsal-
 deko 7etan. Izena ematea
 Irati, Biona eta Etxerat taber-
 netan.

• **CCOOren MANIFESTAZIOA
 BILBON**

Arrasateko Langile Komisioak
 sindikatuak autobusa anto-
 latu du Bilbora joateko. Auto-
 busa Garibaitik aterako da,
 goizeko 10etan.

• **SAN ANDRESKO JAIAK**
 10.30etatik 11etara futbito txapel-
 ketako finalak. 11etan
 pilota partiduetako finalak.
 12etan telegidatutako ko-
 txeen 3. txapelketa.
 12.30etan meza. 2etan jubi-
 latuentzat bazkaria. 5.30etan
 Gorritirekin umeentzat jai-
 aldia eta txokolatada. 9etan
 jaien bukaera.

2 OSTEGUNA

• **ANTZERKIA LA MERCED
 IKASTETXEAN**

Ikasleek antzerki emanaldi bat
 eskainiko dute gurasoentzat
 arratsaldeko 6etan La Mer-
 ced ikastetxean.

• **SAN JUANETAKO BILERA**

San Juan jaiak prestatzeko bile-
 ra. San Juanetarako ekintzak
 proposatu nahi dituztenak
 daude gonbidatuta. Arra-
 tsaldeko 7etan Monterro-
 nen.

ERAKUSKETA

**M^o Jesus Vazquez-en
 eskularen erakusketa
 Monterronen apirilaren
 29tik maiatzaren 5a
 arte. Ordutegia: egu-
 nero 6etatik 8ak arte.
 Larunbat eta jaiegune-
 tan 12etatik 2etara
 eta 6etatik 8ak arte.**

Ducci D303 Eredua- 6.950 Pta.

*Zenbait rehetasunek
 biziki jazten dute*

Ducci D96 Eredua- 7.550 Pta.

*Graduatutako
 eguzkietako
 betaurrekoak
 9.800 pta.tik*

*Begiradarekin liluratzeko diseinuak. Zure estiloari
 doazkion moduak. Punta puntazko modaren xarma.
 Multiopticasen Ducci'96ko, bilduma eksklusiboa da.
 Eguzki lente graduatuekin, zure beharren arabera.
 Hurbil zaitetz eta ezagutu ezazu.*

*Gure mailegu
 txartelarekin
 ordain ezazu
 3 hilabetez kargurik gabe.*

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a
 J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE
 Ibargaray, 16 • BERGARA
 J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a
 Bidebarrieta, 2 • EIBAR

“Mondragon Unibertsitatearen proiektuaren aurkezpenarekin azkenean ulertu ahal izan da hirukoaren gobernuaren esaldi hura, unibertsitate berrien sorkuntzari buruzkoa. Arrasatearren taldeak ez du inprobisatzeko joerarik, beti Lakuatik oso gertu egon izan da. Proiektu honekin Leintz bailaran dagoen zabalkunde global eta autonomoetan urrats berri bat eman du, kooperatiba polibalenteen ekimen gune bihurtuz (industrialak, bankuak, aseguroak, kontsumoa, hezkuntza, eraikuntza) eta baita komunikabide sistema propioa izanda Arrasaten”.

Editoriala. 1996-4-2.

EL MUNDO
del PAIS VASCO

“Uste dut liburuak saldu egiten direla. Nik erosten ditut. Behar ditudalako noizean behin ihes egiteko egunero-ko gerretatik eta estresetik, entzefalograma behartzera behartzen ez nautelako. Irakurgai arinak behar ditut. (...)”

Betetzen nauten idazleen lanak irakurtzen ditut oso gustora. Zorionez, gaur egun euskal literatura osasun onean dago. Dena irakurri beharretik aukeraketa egiteko aukerara pasatu gara. Uhin guztietan gertatzen den bezala une batzuetan puntan izango gara eta beste batzuetan beherago, baina azken batean itsasoan gaude. (...)”

Nire haurtzaroko Arrasate izenburua ipini diot. Ziur aski Udalaren eta Kutxaren artean argitaratuko da. 50eko hamarkadako Arrasateko historia jaso dut. Nik bizi izandakoa eta nire ingurukoek bizi izandakoa isladatu nahi izan dut. Hamarkada horrek egundoko garrantzia dauka Arrasaten”.

J.M. Velez de Mendizabal, 1996-4-25.

Egunkaria

Zertarako eratu nahi duzue prebentzio komunitarioak mahaia?

Orain dela hiru urte Arrasaten prebentzio komunitarioak topaketak egin ziren Udalak antolatuta. Topaketa horietan herriko hainbat taldek parte hartu zuen, eta proposamen desberdinak egin zituzten; prebentzio komunitarioak mahaia eratzea besteak beste.

Arrasateko Askagintzako kideok proposamen hori berreskuratu nahi dugu, Udalari eta herriari mahaia sortzeko aukera planteatuz. Horretarako, lehenengo Udaleko ordezkari politikariekin bilduko gara, Askagintza dinamizatzailea izanda ere mahaia Udalak sortu behar duela uste dugu-eta. Hala ere, prebentzioaren gaia guztiona dela uste dugunez, mahaiean arrasatearrek ere parte hartu beharko luketeela uste dugu. Mahaia irekia izango litzateke, drogen prebentzioan lan egin nahi duten herritar edo taldeei ateak zabalduz. Gure ustez, Arrasaten prozesu parte hartzailea bultzatu beharra dago prebentzioaren arloan.

Mahaia helburua, drogomepeketasunean Arrasateko egoera zein den, lehentasunak zeintzuk diren markatu eta ekintzak antolatzea izango da. Irizpidea, berriz, honakoa izanik: jendeak drogekin baina menpekotasunik gabe eta osasuna arriskuan jarri barik bizi izaten jakin behar duela.

Dagoeneko hasi gara ordezkari politikoekin bilerak egiten, eta uste dugu gure asmoa aurrera aterako dugula.



Juan Mari Belategi
Arrasateko Askagintzako partaidea



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Jende asko antzerkian

Arrakastaz aurkeztu zuen Tunantes del Norte taldeak "Soo bitxo" obra. Jende ugari hurbildu zen herriko plazara obra ikustera, eta antzerki taldearen komeriekkin barre egiteko aukera izan zuten. Antzezlanaren bukaeran Kermiri, Tunantes del Norteko partaide zenari, hil aurretik grabatutako hitzak izan ziren entzungai. Hies-a duten gaisoekiko errespetua eskatzen zuen Kermik hitzen bidez.

Pozik zartzuelarekin

Antolatzaileek jende gehiago joango zela uste bazuten ere, 450 lagun inguru izan zen zapatuko Zartzuela emanaldian. Joan zirenek emanaldi ona ikusteko aukera izan zuten, eta horregatik, pozik atera ziren antzokitik. Gehienbat adineko jendea joan zen zartzuela ikustera. Bi ordu eta erdi iraun zuen emanaldiak.

Istripua

Astearte arratsaldean istripua gertatu zen Otalora



Arrasaten egindako auto elektrikoa

Eskola Politeknikoak, MCCk eta Iberdrolak elkar-lanean egindako auto elektrikoa aurkeztu zen astelehenan Bilbon. Baterien bidez mugitzen den autoa erretxinaz eta zuntzez egin dago, orduko 90 km. abiadura hartzeko gai da, ez du zaratarik ateratzen eta ez du ezer-txo ere kutsatzen.

Momentuz hiri barneko garraioetarako pentsatuta dago, eta horregatik, lehenengo erabiltzaileak Telefonica eta Correos izango dira. Hala ere Eskolan ikertzen jarraitzeko asmoa dago, eta baterien arloa hobetzen bada autoak etorkizun ona izango duela uste dute. Merkatuan ia hiru milioiko kostua du auto elektrikoak.

kalean. Ford Escort markako autoa gidatzen zuen 69 urteko gizonak ustez konortea galdu, eta kalean aparkatuta zegoen auto bat jo zuen.

Gurutze Gorriak 69 urteko gizona Eskualde Ospitalera eraman zuen.

Liburutegikoek ekintzak

Asteartean irratsaio berezia egin zuten liburutegiko arduradunek Arrasate Irratian. Aurrez hitzartuta zegoen moduan, Arrasateko ikastetxeetako hainbat ikaslek telefonoz deitu

zuten, liburutegikoek galderei erantzuteko. Asteazkenean, gainera, liburuz betetako postu bat jarri zuten azokan, liburutegiko bazkide direnek liburuak etxera eraman zituzten. Gutxi gorabehera 20 liburu eraman ziren eta horrez gain, 17 lagunek bazkide txartela egin zuten.

MCCkoen bilera

Asteazken arratsaldean, MCCko kongresisten urteroko batzar informatzailea egin zen Amaia antzokian. Bilerara 650 kongresista deituta egon arren, 250 azaldu ziren. Bileran 96ko egin asmo diren gestioen berri eman zuten.

JAIOTZAK

- Iker Pavón Garai. Apirilaren 10ean.
- Eneko Aspiazu Rouget. 10ean.
- Oihana Pagoaga Arizaleta. 14an.
- Mikel Cordero Perez. 19an.

HILDAKOAK

- Martin Azkoaga Abarrategi. Apirilaren 16an. 57 urte.
- Ignacia Isabel Zubieta Igar-tua. 18an. 85 urte.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.
Lorazaintzako mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



* Juan Luis Arexolaleiba

San Juanak: parte hartuz,... gozatuz!

Sarritan egin ohi ditugun komentarioak dira Arrasateko San Juanei zerbait falta zaiela, zer hobetu badutela eta badituela zenbait faktore kontrako eragina dutenak: ekaina ikasleentzat azterketa sasoia izatea, enpresetan oporraldia denez arrasatear askok herri-rik alde egiteko joera izatea. Bi faktore horiei orokorra- goak diren eta jaiari mesede handirik egiten ez dioten faktoreak daude, nabarmenena individualismorako joera.

Aipaturiko eragozpenak ezin ditugu ukatu baina ezin gara hor gelditu, izan ere arrasatearrok San Juanak (eta gainerako jaiak) primeran pasatzeko aukera handia dugu.

Nire ustez San Juan jaiak bi funtzio nagusi bete behar-ko lituzkete: juergarako edo

ondo pasatzeko egunak izatea batetik eta, bestetik, Arrasate bizi baten islada izatea.

Arrasaten ugariak dira gure kultura, ohiturak eta herri giroa zuzperten aritzen direnak eta talde/pertsona hauen lanari esker maila askotan aberastu da herria. Urtean zehar talde bakoitzak bere

.....

“Gazte guztiok(gazte taldeetan edo edozein kultur taldeetan zabilzatenok, herriko kuadrilok, inon parte hartu ez baina gaiarekiko interesa duzuen partikularrok,...) gonbidaturik zaudete Monterronera”

dinamika propioa badarama ere, San Juanak mobida guzti horien bilgune izan behar dute, partizipatiboak eta herri bizi baten ispilu izan daitez-zen jaiak.

Idea horien berri emateko, apirilean bi bilera izan ditugu San Juan jaien arduradunok eta herriko kultur taldeok. Bileretan bi gai hauek sakondu ditugu: San Juan jaietan kultur taldeen partaidetza, bakoitza bere ohiko jardueran, nola areagotu eta, bigarrenik, jai giroa, jai partehartzailea bultzatzea, elkar- te eta gazteak orohar asmo honen motorra izan beharko lirakekeelarik.

Horretaz guztiaz berba egiteko eta, batez ere, jai partehartzaileak bultzatuz jai giroan urratsak eman ahal izateko, gazte guztiok(gazte taldeetan edo edozein kultur taldeetan zabilzatenok, herriko kuadrilok, inon parte hartu ez baina gaiarekiko interesa duzuen partikularrok,...) gonbidaturik zaudete maiatzaren 2an Monterronen, egingo dugun bilerara.

Arrasatear askok jaiak kantatuz, dantzatuz, gozatuz bizi nahi ditugu. Horretarako jakin ezazue ate guztiak: ideiak emateko, parte hartzeko, antolaketa mailan urratsak emateko,...irekita daudela. Gauza asko ezingo ditugu aurten nahiko genukeen bezala bideratu, bainan ez arduratu, ideiak finkatzen eta argitzen baditugu, izango dugu urratsak eman ahal izateko parada.

HBKO ZINEGOTZIA.
JAIETAKO ARDURADUNA

USTEAK USTE

LEKURIK EZ

**Edozein arratsal-
dan (edo larunbat
goizetan) Monterongo
liburutegira joan eta
lekuri ez. Benetan
azkarra izan behar da
esarlekuren bat libre
topatzeko. Parrokiako
kanpaiek laurak jo eta
San Juanetako en-
tzierroak baino arinago
betetzen dira gelak.
Aspaldiko kontua da
bertan ikasteko leku
gutxi dagoela (hori
baita erabilpenik
ohikoena) eta are
gutxiago hango libu-
ruak kontsultatzen.
Noizbait entzun izan
dugu beste ikasteko
gelaren bat zabaltzeko
asmoa, baina horretan
geratu da. Arazoak ez
du eta irtenbide erra-
zik: lokal falta, printzi-
pioz bederatziz hilabete
bakarrik irauten duen
eskaria, agian inguru-
ko ikastetxeak inplika-
tu beharra... Baina
akaso aurka duen
punturik larriena
bestelakoa da, arazoa
gehienbat gazteena
(ikasleena) izatea
alegia. Bestelakoetan,
Arrasatek duen aparka-
leku eskasian esatera-
ko, proiektuak han eta
hemen egin izan dira
eta batzuk aurrera
eraman ere, nahiz eta
gero beraien erabilpe-
na ez izan espero
bezalakoa. Diferen-
tziak diferentzia,
liburutegiari dagokio-
nean zerbait egiterik
izango da.**

ANDER ETXEBERRIA

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

J.P. eta Traspasos antzerki taldearen eskutik:

PASARELA



AKTORESAK

Ana Elordi

Inma Fdez. de Betoño

Anaia Aldama

Miriam Martin

eta

ELENA ATIENZA arrasatearra

BIHAR Apirilak 27, (larunbata) • Gaueko 22.30etan • Amaia Antzokian

Sarrera: 800 pta. (Gazte-Txartelarekin: 600 pta.)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ARRASATEKO UDALA



ESK, LAB eta ELAko ordezkari sindikalek hirukoaren jarrera salatu zuten.

Udaleko hamasei lanpostu kendu nahi ditu hirukoak

Arrasateko Udaleko enpresa komitea osatzen duten sindikatuetakordezkariek (ESKk, ELAk eta LABek) prentsaurrekoan jakinarazitakoaren arabera, Udaleko hamasei lanpostu kentzea aurreikusten da hirukoaren aurrekontu alternatiboetan. Lanpostu horietatik hamar, aurtien finkoak izango liraketeenak dira, eta beste sei aldi baterakoak. Enpresa komitearen berbetan, "hirukoak kendu nahi dituen lanpostuak behar-beharrezkoak dira, eta horrela egiten bada, zerbitzu batzuen kalitatea jeitsi egingo da". Asteazkeneko prentsaurrekoan azaldu zutenenez, "kultura eta euskara arloak egoera txarrean geratuko dira,

eta hori atzerapen handia izango da".

"Hirukoak oso lotsagarri jokatu du, abenduaren 14an egin genuen bileran lanpostuen inguruan hainbat akordio lortu, eta ondoren, hasieran hitzartutakoa bertan behera utzi dute-eta". Hala ere, hirukoarekin bildu eta egoera bideratzeko gertu azaldu dira,

Sindikatuetakordezkarieren esanetan, Udaleko langileen lan baldintzak oso onak direla uste dute arrasatearrek, baina Udaleko langileak ez dira pribilegiatuak.

Hirukoaren aurrekontu alternatiboetan, bakarrik bi lanpostu finko egitea proposatzen da.

Isurketa ikertzen

Orandik ez da jakin kutsakorra ote den Istingaerreka errekastora egin zen isuriketa. Jaurlaritzak isuri zen likidoaren laginak jaso zituen, eta azterketaren emaitzak laster jakingo direla uste da. Istripua; Musakolako Muebles Peredaren lantegia zenera lapurrak sartu zirenean gertatu zen; inguruan bizi direnen ustez Aste Santuko jai egun batean. Lapurrak lantegian zegoen transformagailuaren kobrea lapurtzera sartu, eta transformagailuak aisilante gisa zuen likidoa isuri zuten. Ondorioz, likidoa filtratu eta ondoko errekastoa, Istingaerreka, kutsatu zuen. Gainera, errekaraino doan bidea erreta geratu zen, eta ura bertatik hartzen dutenez inguruko bizilagunek abisua eman zuten.

Bizilagunak oso ardurata daude, isuri zen likidoa oso kaltegarria izan daitekeela uste dute-eta. Kutsakorra izanez gero, erantzunkizunak eskatuko dituztela esan dute.

Laginen azterketen kostua Pesak ordainduko du, autobus enpresak lantegi hori orain dela gutxi erosi zuen eta.




URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Asteleheneko plenoa beroa izan zen, eta gobernu taldeak hinbat kritika luzatu zizkion hirukoari.

Gobernu taldearen eta hirukoaren arteko hartuemanak moztuta

Herri Batasuna eta Ezker Batua hasi dira hirukoaren aurrekontuak aztertzen. Oraingoz, hala ere, ez dira oposizioko alderdiekin bildu zuzendu nahi dituzten diru partiden inguruko azalpenak eskatu, edo erdibideko aurrekontuak negoziatzeko aukeraz hitzegiteko.

Jose Mari Loitik, hirukoaren bozeramaileak esan duenez, "azalpenak emateko gertu gaude baina zaila izango da erdibideko aurrekontuak adostea, bi proposamenen artean dauden desberdintasunak handiak dira-eta". Angel Tijeroren, EBko zinegotziaren berbetan, "ateak zabalik ditugu, eta gertu gaude bi aurrekontuen arteko desberdintasunak gutxitzeko". Xabier Zubizarreta, alkatearen esanetan, "aurrekontuen inguruko azalpenak eman eta euren intentzioa zein den argitu beharko du hirukoak: aurrekontuak inposatu edo erdibideko batzuk negoziatu". HBko partaideak aurreratu duenez, datorren astean hirukoare-

kin bilerak hasiko dituztela uste dute.

Jose Mari Loitiren berbetan, "momentu honetan pilota alkatearen teilatuan dago, eta berak jakingo du noiz arte eduki nahi duen herria aurrekontu barik". Hirukoaren bozeramailearen ustez, asteleheneko plenoan ere gobernu taldeak eska zitzakeen azalpenak eta aurrekontu alternatiboak onartu, "baina denbora emateko obligazio morala genuela uste dugu". Hala ere, apirilaren 15erako, eta ez 48 ordu lehenago, alkateak hirukoaren aurrekontuak ezagutzen zituela jakinarazi du Loitik.

Joan den asteleheneko plenoan ez ziren 96rako aurrekontuak onartu. Aurkako 13 botorekin, HBren eta EBaren aurrekontuak atzera bota zituzten EAJK, PSE-EEak, EAK eta PPK. Hirukoaren aurrekontu alternatiboak, berriz, ez ziren bozkatu gobernu taldeak horiek aztertzeko denbora exigitu ondoren hirukoak eman zielako.

Maitzaren Leheneko ekintzak

Datorren asteazkenean langilearen eguna dela eta, elkarlanean antolatu dituzten ekintzen berri eman zuten asteazkenean ELA eta LAB sindikatuak. Bi ekintza azpimarratu zituzten bereziki: zapatuan Bergaran egingo duten manifestazioa, eta bes-tetik, Iruñan maitzaren lein egingo dena. Horrez gain gaur, ostiralean, aldi baterako lan enpresen aurkako ekintza egin behar zuten Arrasaten.

San Frantzisko kalea itxi

San Frantzisko kalea, Otaratik Pablo Urangara doana, itxi egingo dute. Irgala eraikuntza enpresak inguru hori urbanizatu behar duela-ko itxiko da kalea. Irailaren bukaerarako lanak amaituta egingo direla uste da.

Pakete turistikoak Turlanek

Oñatiko Turlan kooperatibak izango du bailaran bi pakete turistiko garatzeko ardura. Mankomunitateak asteazkenean egin zuen Junta erabaki zen adjudikazioa Turlani ematea. Ekaina arte, bailara ezagutzeko helburua izango duten bi eskaintza turistiko garatuko ditu Turlanek, eta ondoren, merkatura ateratzeko pausuak ematen hasiko dira.

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tfnoa: 79 11 72

ANBOTO BODEGA


Auzo giro jatorra!

Anboto, 1 behea
Tfnoa: 77 09 15 ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrieras, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



San Viatorreko 2.I.E.E.ko ikasleek astebete igaro dute Katalunia aldean. Bertan era guztietako ekintzak egin dituzte:

zaldian ibili, rafting-a, txalupaz Deltebre bisitatu, Port aventura ezagutu. Argazkian Bartzelonatik agurtzen gaituzte.

ALMEN ikastolako hiru futbol talde 11 eta 12 urte bitarteko jokalariekin osatuta-koak Frantziako Saint Pierre du Mont herrira joan ziren eta Le Tourno' de L' amitié txapelketan hartu zuten parte. Gaztetoenek futboleak egin eta ederto pasatzeko aukera


izan zuten. Beraiekin joandako gurasoei buruz beste horrenbeste esan behar. Almeneko ikasleen gurasoak eta Frantziakoak elkarren kontra neurtu zituzten indarrak eta hemengoak 0 eta 3 nagusitu ziren. Hauek bai futbol jokalaria trebeak!



Altamirako jaiak ospatu dira asteburuan. Eguraldia lagun jende asko hurbildu zen antolatuta zeuden ekintzetan parte hartzeko. Gaztetoenek froga desberdinak izan zituzten euren trebetasunak erakusteko eta auzoko jubilatuek omenaldi beroa jaso zuten. Beraz bai batzuek eta baita besteek ere primeran pasa zutela esan behar.



San Frantzisko Xabier ikastolako 7., 8., 9. eta 10. mailako ikasleek "Euskara eta Kultura a ze abentura" lemapean tailerrak antolatu dituzte aste honetan. Kazetaritza, euskal dantzak, rockodromoa, aerobic, mendi irteerak... denetik izan dute kultur astearen barruan. Argazkiko ikasleak bere lagunaren aurpegiak molde bezala hartuz maskarak egiten ari dira.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

1961eko kintoek bazkaria izan zuten zapatuan. 12.30etan San Frantzisko eliza parean elkartu ziren hildako lagunen alde meza entzuteko. Ondoren txikiteoa egin eta Amaika Bat elkarrean izan zuten bazkaria. Argazkian dotore dotore agertzen dira kintoak!



Institutuko lehen maila , bigarren maila eta Logseko 15 ikasle Frantziako Saintes herrira joan ziren

astelehenean frantzeseko klaseetan ikasitakoa praktikan jartzeko. Bertako familietan bizi izango dira 10 egunetan eta irailean Frantziako ikasleak etorriko dira Arrasatera bisitari. Bidaia bi helburu ditu: bertako hizkuntza ikastea eta bide batez ondo pasatzea.

IZEN PROPIOAK

● **Beñardo Kortabarría** Arkoko erredaktore burua herri komunikabidei buruzko hitzaldi bat ematera joan zen Madril asteartean. Hitzaldia Madrilgo Euskal Etxean eman zuen eurek luzatutako gonbiteari erantzunez.



**HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK,
3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA**

Errentagarritasun bermatua 3 urtetan

% 25

Errentagarritasun bermatua 5 urtetan

% 48

**BANKINTER
A G E N T E A**

Lor itzazu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute erretentziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretik batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri aprobez dezakezuna.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikiren bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.

MIKEL LASA Aseguru Artekaría, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxa: 77 10 74

Uztailean lan egin nahi baduzu egin zaitez Txatxilipurdiko begirale.

BETE BEHARRAK

- 18 urte beteak izatea.
- Euskara ongi menperatzea.
- Haur eta gaztetxoekin harremanak izateko gaitasuna.

EKARRI BEHARREKOAK

- Kurrikuluma.
- 2 argazki.
- NAN-aren fotokopia.

INFORMAZIOA

Txatxilipurdi elkarte.
Pablo Uranga 4, behea.
Tfnoa: 79 54 46

IZEN EMATEA

Apirilak 30a
baino lehen.



LORAMENDIN

4.995 pta.



9.995 pta.



12.995 pta.



19.995 pta.



Prezio
eskaintza
zabalena!

Z E R N A H I A G O ?

Jose Antonio Oliva

“Arragoi” tabernakoa



- Nondik dator tabernaren izena? Atzean dagoen mendixkaren izena da.
- Udaberrirako edari berezi bat? “Margarita” bat, tekilaz, limoizko zukuaz eta Cointreau-az egindakoa.
- Txikitan zer izan nahi zenuen? Medikua.
- Tabernariak asko ligatzen ei dute... Beno, nik horrela aurkitu nuen nire neska-laguna.
- Ajea kentzeko erremedio bat? Ajea sortutako edaria goizean edatea berriz ere.
- Whisky marka bat? Cardhu, Maltakoa da.
- Zenbat seme-alaba izatea gustatuko litzaizuke? Zortzi.
- Noiz harrapatu zenuen lehen mozkorra? Hamazortzi urterekin.
- Arrasaten asko edaten da? Bai.
- Alkoholdun edariak edo gabekoak gehiago? Alkoholdunak.
- Makina ala rock'n'rolla? Rock'n'rolla.
- Ze aktorearekin grabatuko zenuke eszena erotiko bat? Julia Roberts-ekin.
- Zapatilak ala zapatak? Zapatak.
- Zapatuetan egoten da martxarik Arrasaten? Ez asko.
- Egin dizu inoiz uso batek kaka gainean? Niri ez baina kotxeari askotan.
- Telebista programa bat? “Quien sabe donde”.
- Joaten zara gimnasia? Ez dut horren beharrik.
- Mentazko ala fresazko txikleak? Limoizkoak.
- Gustatu zaizun azken filmea? Heat.
- Kafe hutsa ala ebakia? Ebakia.
- Zure izakeratik zer ez zaizu gustatzen? Oso serioa naiz.
- Zein kotxe izatea gustatuko litzaizuke? Mercedes bat.

LABURRAK

Gaztetxearen V. Urteurrena

Arrasateko Gaztetxearen 5. urteurrena laister beteko dela eta, gaztetxearen 5 urteko historia jasoko duen erakusketa egingo da maiatzaren 3tik 5era.

Erakusketa hori egin ahal izateko bost urte hauetan gaztetxeak bizi izan dituen esperientzien testigu diren gauzak behar dituzte gaztetxeok (argazkiak, egunkarietako artikulak, kartelak...).

Gauza guzti horiek apirilaren 30a baino lehen biltzea gustatuko litzaieke eta gaztetxean nahiz Gazte Bulegoan utzi daitezke jabearen izena jarriz eta utzitako gauzari buruzko testutxo bat idatziz. Erakusketa amaitu eta gero, gauza guztiak jabe-ei bueltatuko zaizkie.

Umeen tanborradarako entsaioak

San Juanetako umeen tanborradan parte hartu nahi duten haurrek apirilaren 29 eta 30ean eta maiatzaren 2 eta 3an egin beharko dute izen-ematea SUD-Ceko lokalean (Pablo Uranga, 4) arratsaldeko 6etatik 7etara.



TXOKO TABERNA
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24 Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 19 71 Tfnoa: 79 26 23

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.



106



306



Cabrio



806



ZATOZ PEUGEOT GAMA BERRIA EZAGUTZERA!

205




406



605



Boxer



Zaldispe, 2
ARRASATE

Tfnoa: 79 50 71 / 79 97 12

Berria!

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

EKOMOBIL



PEUGEOT

ARRASATEN, ZERBITZU OSOENA!



Mekanika, elektrizitatea...



Txapa, pintura.



Erakusketa eta salmenta.

PEUGEOT 106 BERRIA
150.000 pta. gutxiago

PEUGEOT 306
400.000 pta. gutxiago

PEUGEOT 406
406.000 pta. gutxiago



LEHOIAREN ESKAINTZAK

Auto berriak!

50 baino gehiago!

Diesel!

Gasolina!

100.000 pta. tik aurrera!

Km. 0!

Berria!

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

EKOMOBIL



PEUGEOT

Ziztu bizian datoz Udalatik Goitibeherak

Maidar Egües

Nork ez du sekula abiadura bizian aldatz behera goitibehera batean jeisteko irrikia sentitu? Zenbatek txikitzen aitonaren garage zaharrean aurkitutako burdin eta bizikleta zaharren gurpilekin ez du goitibehera itxurako tramankulu bat egin? Begirada bat atzera botaz gero, bat baino gehiagori oroitzapen goxoak etorriko zaizkio ziurtasun handirik ez zuten baina adrenalina toperaino igotzen zuten goitibehera famatuak gogoratzean. Batek baino gehiagok ere atzera egingo zuen orduko goitibehera kaxkarrek zuten ziurtasun ezagatik beldurtuta, edo amak, goitibehera jeitsieretan parte hartzekotan botatako meatxuekin kikilduta.

Orduko beldurrak eta bete gabeko gogoak atzean utzi eta berriz ere aspaldi galdutako ohitura liluragarri horrekin gozatzeko aukera egongo da laister Arrasaten. Goitibeherazaletasu-

na Arrasatera bueltatu da. AEDK eta Arrasate Kirolakek elkarlanean, duela 15-20 urte erdi-debekatuta geratu ziren goitibehera jeitsiera antolatu dute San Juan jaietarako. "Goitibeheren Igo San Juan Saria"

izenburupean, Udalako aldapan goitibehera lehiaketa egongo da ekainaren 23an goizeko 11etatik aurrera. Hego Euskal Herrian neumatikodun gur-

pilekin egiten den lehenengo jeitsiera izango da.

DUELA 20 URTEKO GOITIBEHERAK

Bizitzak aurrera egin du,



Ekainaren 23an goizeko 11.30etan hasiko da goitibeheren jeitsiera Udala auzotik. Hasi, bada, zuen goitibeherak prestazera.

eta kotxeetan nahiz bizikletetan eman diren aurrerape-
nak bezala, goitibeheretan
ere eman da hobekuntzarik.

Danel Goikoleak, San Juanetako goitibehera jeitsiera berri honen bultzatzailetarik batek gogoratzen duenez, lehengo goitibeherak oso arriskutsuak ziren: "Orain dela 15-20 urte goitibehera jeitsierak sekulako arrakasta zeukaten eta Arrasaten egiten ziren batzuk, Udako jeitsiera, Euskadiko Kutxakoa, Santamainakoa... baina orduko tramankuluak benetan arriskutsuak zirela onartu behar da. Errodamentuekin egiten ziren, hau da, burnizko gurpilekin. Gogorak bai baina abiadura asko hartuz gero, bihurguneetan ez zegoen zer eginik, zuzen zuzenean aurrera joaten ziren eta gero gerokoak!! Istripu asko

egoten zen, gurpil horiek ez zioten lurrari eusten eta. Gainera, horrelako jeitsierak antolatzen zirenean, aseguru bat egiten zen baina ikuslea bakarrik babesten zuen aseguruak, goitibeheran zioazanak berriz ez. Behin istripu potolo bat egon zen eta tartean salaketaren bat ere jarri ei zuen norbaitek. Udala moskeatzen hasi zen eta goitibeherak bideak hondatzen zituztela aitzakitzat jarritz, erdi-debekatuta geratu ziren jeitsiera famatuok. Gutxinaka gutxinaka lehiaketa gutxiago antolatuta ziren eta parte hartzaile kopurua ere asko jeitsi zen".

Baina aspaldiko ezbeharrak berriz ere gerta ez daitezen, San Juanetako goitibehera jeitsieraren bultzatzaileek neurriak hartu dituzte. Joan den urteko abuztuan Iparraldeko Sara herrian anto-

latu zuten goitibehera jeitsieraren arauak erreferentzia hartuz, ekainean Arrasaten egingo den horretan istripuak ekiditea nahi dute.


ORAIN NEUMATIKODUN GOITIBEHERAK

Joan den udan Sarako lagunek goitibehera jeitsiera antolatu eta horren berri egunkarietan eman zutenean, AEDko "Hegoaxe" taldeko partaideak berotu egin zirela esaten du Danelek. Iparraldean ez ei da goitibehera jeitsieretikiko ohitura handirik egon baina haiei ere gogoia sortu zitzairen. Duela 20 urte Arrasaten goitibeheren gurpilekin egon zen arazo bera sortu zitzairen Sarakoei eta horregatik, antolatzaeri zihozaz jeitsieraren oinarriko arau moduan, neumatikodun gurpilak erabiltzea jarri zuten.

Sarako jeitsierak sekulako arrakasta izan zuen eta bertako antolatzaileek Euskal Herrian goitibehera lehiaketa zirkuito bat antolatzea jarri zuten helburutzat. AEDko "Hegoaxe" taldeak horren guztiaren berri izan zuenean, eta talde honen helburua Iparraldearekin harremanak sendotzea dela kontuan izanik, Arrasaten goitibehera jeitsiera bat antolatu eta mugaz bestaldeko lagunak gonbidatzea erabaki zuten. Pentsatu eta egin: Iazko San Juanetako herri-kirolen arrakasta eskaxa ikusita, AEDk eta Arrasate Kirolak, herri-kirolen ordeztu "Goitibeheren Igo San Juan Saria" antolatzea erabaki dute.

Sarako jeitsieran 40 goitibeherazalek parte hartu zutela eta istripurik egon ez zela kontutan izanik, Arrasaten hango jeitsieraren arau berdina izango dira.

Arrasateko jeitsieran Euskal Herriko edozein lagunak parte hartu ahal izango du. Goitibeherak egiteko ez da dirulaguntzarik emango baina duela urte batzuetako jeitsieraren aldean, aurtengoan ez da ezer ordaindu beharko izenematea egiteagatik. Gainera antolatzaileek kamioi bat alokatuko dute Baionara joan eta bertako partehartzaileen goitibeherak ekartzeko. "Guk



Lehiaketan parte hartzeko guztiz beharrezkoa izango da kaskoa eramatea.

dakigula, Iparraldetik sei goitibeherero behintzat etorriko dira. Guztira Udalan 40 bat goitibehera elkartzea gustatuko litzaziguke baina badakigu hori asko dela. Ea jendea animatzen den" esaten du Danelek.

LAGUNTZAILEAK BEHAR

"Horrelako jeitsiera bat antolatzea ez da lan erraza eta horregatik laguntzaileak behar izango ditugu" dio Danelek. Ekainaren 23an goizeko 11etan Udalako aldapan sekulako jendetza elkartuko dena espero dute. Horregatik, goitibeheren jeitsiera zaindu eta neur-tuko duten pertsonak behar dituzte. Danelek azaltzen due-

nez, Arrasateko irratizaleekin jarri dira harremanetan. Hauen zeregina erlojuz kontrako frogaren denborak hartzea litzateke, baita ondoren goitibehera denek batera egingo duten jeitsierarena ere. Horrez gain, jeitsiera aurreko lanetan lagunduko duten pertsonak ere behar dituzte, lastozko fardoak jartzten adibidez. Laguntza eman nahi duenak AEDra dei dezakeela esaten du Danelek.

NOLA EGIN GOITIBEHERA

Goitibehera bat egiteko ez da beste munduko ezagupenik behar. Dirua gastatzea ere ez da beti beharrezkoa izaten,

desguazetara burdinen etabarraren eske joanez gero askok muxutruk ematen dute eta.


Material guztia batu ondoren goitibeheraren muntaia hasten da: "Arrasaten galdereria eta tailer mekaniko asko dago, beraz, burdinak lotzen asmatzen ez bada, bertara eramandaiteke tramankulua. Bestalde, denok daukagu lagunena bat Eskola Politeknikoan eta horrek ere lagundu diezaguke. Egia esan, nahi izanez gero eta laguntza pixka bat eskatuz gero, erraz egin daiteke goitibehera bat. Pare bat astetan amaitu daiteke, baina denboraz hasi behar da". Arrasaten sei bat lagun hasita ei daude

euren goitibeherak egiten eta batzuk, "goitibeherazale historikoak" omen dira.

Udalako aldapari dago-kionez, ez dela arriskutsua esaten du Danelek. 3,5 Km-ko luzeera du eta bi edo hiru bihurgune ezik, erraza ei da jeisteko. Goitibeherarekin orduko 60-70 Km.ko abiadura hartu daitekela dio Danelek. Aldapak %5 edo 6ko desnibela dauka.

San Juanetako goitibehera jeitsiera Udalan egiteko erabakia hartu baino lehen, Kanpanzarko eta Bedoñakoan ibili ziren pentsatzen. Kanpanzarkoa baztertu egin zuten bideko bazterrak ez direlako onak publikoa jeitsiera ikusten egon zedin. Bedoñakoa ere baztertu egin zuten azkenengo tartea oso aldapatsua delako eta aurrean pareta handia dagoelako. Jakina, horiek oso arriskutsuak izan zitekeelakoan, Udalako aldapa ikusi zuten egokiena.

"Goitibeheren Igo San Juan Saria"n parte hartu nahi duen edozeinek, ekainaren 23ra arte izango du izenematea egiteko aukera. Gainera, egun horretan arratsaldeko 3etan bazkaria izango dute Arimazuri plazan parte hartzaile guztiek.

Goitibeheraren neurriak	Sariak
	<ul style="list-style-type: none"> 1.- 30.000 pta. eta Txapela. 2.- 20.000 pta. 3.- 15.000 pta. 4.- 12.000 pta. 5.- 10.000 pta. 6.- 9.000 pta. 7.- 8.000 pta. 8.- 7.000 pta. 9.- 6.000 pta. 10.- 5.000 pta. Zoritxarrari, 5.000 pta. Orijinaltasunari, 5.000 pta.

Gotibehera lehiaketaren 10 mandamentuak

- 1.- Gotibeherak hiru gurpil eta arrastak (frenoak) eraman beharko dituzte derrigorrez, gurpilak pneumatikodunak izan beharko dutelarik.
- 2.- Taldeak bi pertsonaz osatuko dira -gidaria eta bultzatzailea- eta helmugan bi partaideak goitibehera gainean sartu beharko dira. Kaskoa derrigorrezkoa da bientzako.
- 3.- Bihurgunetan ezik goitibeherak bidearen eskuineko aldetik joan beharko du ezkerreko bide-zatia aurreratzeko libre utziz.
- 4.- Gidariak ezingo du goitibehera bultzatu.
- 5.- Jeitsiera bi egingo dira: lehengoa erlojupekoa eta bigarrena hogeit denbora onenen arteko finala. Hogeit hauen artean sartzen ez direnak ere hogeinaka jeitsiko dira. Erlojupeko eta hogeinakako jeitsieren denborak batuz, azken klasifikazioa aterako da.


- 6.- Antolakuntzak ez du parte hartzaileei gerta dakienaz erantzunkizunik izango. Norberaren aseguruua norberaren kontu joango da.
- 7.- Goitibeheraren gehienezko neurriak hauek dira: ardatzen arteko gehienezko tartea 150 zm., gurpilen arteko gehienezko zabalera 120 zm. eta gurpilaren gehienezko diametroa 54 zm.
- 8.- Neurri hauek errespetatzen ez dituzten goitibeherak parte hartu ahal izango dute, baina ez dute sari nagusirik irabazteko aukerarik izango (bai ordea orjinalenaren edo zoritxarraren sarirako aukera).
- 9.- Izenematea ekainaren 23an goizeko 9etatik 11etara egin beharko da Arimazuri plazan edo aurrez 77 12 28 telefonoan. Jeitsiera 11.30etan hasiko da Udala auzotik.
- 10.- Oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein kasuren aurrean, antolakuntzak erabakitzeke ahalmena izango du.

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Bigarren Faseko 7. ihardunaldia.*
- *Hirugarren Faseko taldeak*
- *Emaitzak eta Sailkapenak*
- *Protagonista: Jon Mikel Arroyo*

Bigarren faseko azken ihardunaldia jokatu zen joan zen asteburuan. Emozioa ez zen falta izan hainbat neurketetan eta sorpresa batzuk ere izan ziren. Argi Ibili eta Hirei taldeen arteko partiduan launako berdinketa nagusitu bazen ere, Hireik 2 goleagatik hurrengo fasera sailkatze-ko aukera galdu du. Aurre-
ra Boliek berriz, 6 eta 2 irabazi zion Irati STSri baina Betrayer 3 eta 1 nagusitu zenez Totemen kontra, talde horrek lortu du hirugarren faserako txartela. Bestalde Sortu Informatika itxuraz talde sendoa zirudiena kalean dago Trikitiren aurrean 3 eta 1 galdu ostean.

Emaitza aipagarriak eta beste lesionatu bat ekarri du 7. ihardunaldiak. Argi Ibili taldeko Luis Heriz jokalaria ligamentuak hautsi ditu eta astelehenean ebakuntza egin zioten. Kontuak kontu, maila hobe erakutsitako taldeek lortu dute hurrengo fasera sailkatzea.



Arreta
handiko sukaldea

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE

Sailkapenak

Emaitzak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibili	7	6	1	0	39	12	13
Perrahotsa	7	4	1	2	19	24	9
Kamasutra	7	4	0	3	30	22	8
Okoretegi Tab	7	3	2	2	24	22	8
Hirei	7	3	2	2	25	24	8
A ti que te importa	7	2	2	3	21	21	6
Txeyenex	7	2	0	5	11	21	4
Zotz Motz	7	0	0	7	26	49	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Fosforos	7	5	1	1	34	21	11
AC Surcos	7	4	2	1	29	23	10
Cerveceria Leintz	7	4	2	1	27	23	10
Sokoakoak	7	4	1	2	33	22	9
Orlando Piratas	7	3	0	4	25	32	6
Los Heredia	7	3	0	4	29	31	6
Nuevo Taberna	7	2	0	5	33	33	4
Lautherbrunen	7	0	0	7	26	50	0

A Taldea

A ti que te importa 1 - Txeyenex 0
Kamasutra 5 - Okoretegi taberna 2
Argi Ibili 4 - Hirei 4
Zotz Motz 3 - Perrahotsa 4

B Taldea

Fosforos 7 - Orlando Piratas 1
Lautherbrunen 6 - AC Surcos 7
Cerveceria Leintz 4 - Nuevo tab 3
Los heredia 4 - Sokoakoak 7

D Taldea

Arrogoi taberna 4 - Pub people 5
DKB 0 - Arrasate Kirolak 1
Adelaida haizea 4 - MSM Ing Int 4
Insert Coin 4 - Danok algun 4

E Taldea

Aurrera Bolie 6 - Irati STS 3
Artzankos Udalaiz 1 - Anbotoste 0
Betrayer 3 - Totem 1
Sortu Informatika 1 - Trikiti 3

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida Haizea	7	4	3	0	28	10	11
Insert Coin	7	5	1	1	27	23	11
Arrasate Kirolak	7	3	2	2	24	18	8
Pub People	7	3	2	2	21	23	8
MSM Ing Integ	7	3	1	3	24	25	7
Arrogoi Tab	7	2	1	4	23	26	5
Danok Lagun	7	1	2	4	18	24	4
DKB	7	0	2	3	13	29	2

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Totem	7	5	1	1	36	21	11
Trikiti	7	5	0	2	25	13	10
Irati STS	7	4	1	2	27	22	9
Betrayer	7	4	1	2	27	22	9
Aurre Bolie	7	4	0	3	26	20	8
Sortu Informatika	7	3	0	4	18	26	6
Artzankos Udalaiz	7	1	1	5	15	27	3
Anbotoste KT	7	0	0	7	13	36	0

Hurrengo partiduak

Larunbata 27 Zaldibar
10.50 Kamasutra - Sokoakoak
12.00 Totem - Perrahotsa
16.00 Fosforos - Insert Coin
17.00 Irati STS - Okoretegi Taberna
18.00 Arrasate Kirolak - Betrayer

Igandea 28 Zaldibar
9.50 Cerveceria Leintz - Pub People
11.00 Argi Ibili - AC Surcos
12.00 Adelaida Haizea - Trikiti

Labur

■ **HIRUGARREN FASEA HASTEAREN HIRUGARREN FASEAK HIRU I HARDUNALDI IZANGO DITU. BEHARREZKO NEURKETAK JOKATU ONDOREN, BI TALDE SAILKATUKO DIRA. ONDOREN FINAL-LAURDENAK EGONGO DIRA JOKUAN. GERO FINAL-ERDIAK ETA EKAINAREN BATEAN FINALA.**

Hirugarren faseko taldeak

A taldea

Argi Ibili
AC Surcos
Arrasate Kirolak
Betrayer

B taldea

Fosforos
Insert Coin
Irati STS
Okoretegi Taberna

D taldea

Adelaida Haizea
Trikiti
Kamasutra
Sokoakoak

E taldea

Totem
Perrahotsa
Cerveceria Leintz
Pub People

Protagonista


Jon Mikel Arroyo
(Pub People)

— Dagoeneko 3. fasean zaudete, samurra izan da pasatzea?

— Ez, oso zaila. D multzoa gurea, beharbada, txapelketako makalena izan da baina hala ere azkenera arte borrokatu behar izan dugu. Gainera askotan jende gutxi-ekin jokatu ditugu partiduak, lasai samar hartu dugu bigarren fasea eta gero larri eta estu ibili gara hirugarrenera sailkatzeko

— Nolakoak izan dira azken partiduak?

— Intentsio eta emozio bizikoak. Talde guztiak garai-penaren bila aritu gara eta ez



dugu amore eman epaileak bukaera adierazi arte.

— Zer da garrantzitsuena irabaztea edo parte hartzea?

— Biak, ni kirola egin eta ondo pasatzeko kantxaritzen

naiz baina era berean irabaztea gustatzen zait eta hori lortzeko borrokatzen dut.


— Ilusioa egiten du sailkatzeak?

— Ilusio handia. Iaz ez ginen hirugarren fasera sailkatu aurten berriz hobeto ibili gara eta lortu dugu.


— Hurrengo fasea nolako izango da?

— Taldeen arabera dago. Talde sendoa tokatzen bazazu berehala joan zaitezke kalera, makalagoa bada aukera gehiago duzu. Dena dela Pub People gaur egun nola dagoen ikusita uste dut aurrerago joateko aukera handirik ez dugula.

Beren kontura lan egiten dutenentzat.



NEC telefono mugikorra doan mailegu edo leasinga formulatzeagatik.



Kontu Profesionala.

Eskerrak norbait oroitzen den beren kontura lan egiten dutenekin.

Euskadiko Kutxak beren kontura lan egiten duten profesionalen finantza-beharrak sakon aztertu ditu. Eta erantzun ausarta eta eraginkorra eman die zerbitzu oso eta berezi baten bidez. Kontu Profesionala. Finantza Entitate bati eskatuko zeniokeen guztiarekin.

Orain, dirua gogor lan eginda irabazten ikasi duzun horrek, finantza aholkularitza fiskal eta finantzarioan aditua den talde baten laguntza duzu.

- Hasteko, interes handiagoa kontu korrontean. %5,5*rainoko UTB.
- Zorpekoak %15eko interes nominalen (%15,87ko UTB).
- Aholkularitza Fiskala doan, telefono-zerbitzu baten bidez: 8:00etatik 22:00etara 901-333 444an.
- Gaixotasunagatik Baja Asegurua** merkatuko antzekoak baino %25eraino merkeago.
- Zure proiektuen finantzaketa, baldintza bereziko kreditu linea baten bidez.

Eta gainera beste abantaila batzuk:

Autonomoetako Ordainagiria helbideratzeagatik, Visa Clasica Txartela doan Kontu Profesionalaren titular zaren bitartean edo Visa Oro lehen urtean doan.

Pentsio -edo Aurrikuspen- plan bat irekitzearen:

- 5.000 pezetako lehen ekarpena Euskadiko Kutxaren kontura.
- 3.000.000 pezetako Istripu Asegurua***, kosturik gabe lehen urtean.

Zure kontura lan egiten baduzu, jakin dakizu zenbat izerdi bota behar den dirua irabazteko. Orain, ikas ezazu dirua estimatzen. Ireki ezazu Kontu Profesionala Euskadiko Kutxan.

Informa zaitez Euskadiko Kutxaren Sukurtsaletan, goizez nahiz arratsaldean. Edo 901-333 444an, gaueko 10ak arte.

*Ordaindu gabeko eguneroko gutxienezko saldoa 150.000 pezeta. Kopuruaren arabera ordainketa. UTBren adibideak: 250.000 pezetarekin %1,6. 500.000 pezetarekin %2,8. 1.000.000 pezetarekin %3,82. 5.000.000 pezetarekin %5,5.

**Aegon, S.A. Aseguruetearekin kontratatuta.

***Euskadiko Kutxa Taldeko Lagun Aro, S.A. Aseguruetearekin kontratatuta.

Telefonoa onartzeak linea kontratatzearen konpromisua du barne.



CAJA LABORAL

EUSKADIKO KUTXA

Mondrako emakumeak liga eskuratzeko zorian

Mondrako emakumeek Elgoibar taldearen kontra neurtu zituzten indarrak zapatuan eta Arrasatek bigarren zatiko 10 minutuan Susana Santorrek sartutako golari esker 0 eta 1 irabazi zuen. Garaipen hori garrantzitsua izan da etxeko ordezkarietzat. Izan ere lortutako puntuei esker eta datorren zapatuan Urretxuren kontra Atxabalpen irabaziko balute 95-96 liga Arrasaten geratuko litzateke.

Urretxu-Zumarraga taldea sailkapeneko 5. tokian dago 54 punturekin. Gaurdaino 16 neurketa irabazi ditu, 6 berdindu eta 6 galdu. Golei dagokienez 101 sartu dituzte eta 51 jaso. Mondrak berriz, 24 norgehiagoka irabazi ditu, 2 berdindu eta 2 galdu. 130 gol sartu dituzte eta 23 bakarririk jaso. Mondrako emakumeek txapelketako talde onena dela erakutsi dute denboraldian. Gainera erantzunkizuna hartu behar izan denean ondo erantzun du Juanina Garaiek zuzentzen duen taldeak. Orain euren ilusio han-



Mondrako emakumeek denboraldi hasierako helburua errealitate bihurtzeko.

diena zapatuan arratsaldeko 4.30etan Urretxuren kontra irabazi eta datorren urtean goiko ligan jokatzeko da. Jokalariak itxaropentsu daude, dena dela badakite neurketa jokatu arte ezin dela ezer esan. "Urretxuri beti irabazi diogu eta azken partiduan gaur arteko emaitzak errepikatzen lan egingo dugu. Hala ere Urretxu irabaztera etorriko da eta

ezin gara fidatu epaileak bukatu arte". Lehen bueltan Urretxuk eta Mondrak elkarren kontra jokatu zuten Arrasate nagusitu zen 0 eta 2.

Mondra eta EHU

Bestalde 3.mailako Mondrak Euskal Herriko Unibertsitatea izango du aurkari zapatuan Donostian. Mondra

34 punturekin 18 tokian dago eta hemendik aurrera ezingo du hutsegina bestela 3. mailan jarraitzeko aukerak ihes egin dakiok. Sailkapenari begira irabazteko moduko neurketa badirudi ere, ez da ahaztu behar azken ihardunaldian EHUak Zalla liderrari 0 eta 1 irabazi ziola eta horrek indar berria emango zion Donostiako taldeari.



Kalitate goiena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58

Urbina Maltzaga Gipuzkoako talde onena

Arrasateko saskibaloitaldeak lorpen handia eta historikoa bete du igoserako lehen play offean Donostiako Askatuak taldeari irabaziz. Kanporaketa hiru neurketatan erabaki zen. Lehen partidua iturripen jokatu zuten talde biek eta donostiarren aldekoa izan zen azken emaitza. Ostiralean berriz, Josean Gaska kiroldegian bigarren partidua jokatu zen eta jende askok uste zutenaren kontra, Urbina Maltzagako jokalariek 64 eta 71 irabaztea lortu zuten. Berdinke-ta nagusitu zenez hirugarren partidua jokatu behar izan zen domekan. Orduan ere, Arrasatekoa izan zen talde onena.

Orain Urbina Maltzagak beste play off bat jokatu du Pamesa Valencia, Fuenlabrada eta Montehuelva taldeen artean. Lehen norgehiagoka Iturripeko kiroldegian jokatu-ko da zapatuan arratsaldeko 6etan. Aurrez aurre Urbina Maltzaga eta Madrilgo Fuenlabrada taldeak izango dira. Partidurako Carlus Groves amerikarra Arrasateko taldean izango da. Dena dela amerikarrarekin ere, kostako zaio Urbina Maltzagari garaipena lortzea. Fuenlabrada EBA liga-



Partidu garrantzitsua izango dute zapatuan arratsaldeko 6etan Iturripen.

ko talde sendoena eta onena eida. Bere jokalarien artean bi amerikar daude, Moore 2, 08 metroko pibota eta Espinosa Espainian nazionalizatutako amerikarra. Azken honek denboraldia ACB ligan hasi zuen Huesca taldean. Horrez gain, Castellanos eta Santos jokalariek ere kontuan hartzekoak dira, biek ACBn esperientzia dute eta.

Zapatuko neurketarako sarrera bereziak atera dituzte

Urbina Maltzagako ordezkariak. 14 urte beherakoek ez dute sarrerarik ordaindu behar, 14 eta 18 urte artekoentzat prezioa 500 ptakoa da eta etxean jokatu diren hiru partiduetarako bonoa 1.000 pta., 18 urte gorakoentzat 1.000 pta. eta hiru partiduetarako bonoak 2.000 pta. Une honetan Arrasateko saskibaloitaldekoek jarraitzaileen babes guztia behar dute bigarren kanporaketa honetan ahalik eta lan

onena egiteko, horregatik Urbina Maltzagako ordezkariak Iturripeko kantxa goraino bete nahi dute eta herritar guztiei partidura joateko gonbitea luzatzen die "goi mailako saskibaloia ziurtaturik dago bigarren kanporaketa honetan. Bestalde, ez dakigu gure taldea zer egiteko gauza izango den, hala ere oso itxaropentsu gaude eta bi talde sailkatu behar direnez gurea bat izan daitekeela uste dugu".



Karatekek emaitza onak

Saioa karate taldeko 11 karatekek Gipuzkoako infantil eta senior mailako txapelketetan hartu dute parte astebukaeran. Arrasateko ordezkariak orohar ondo aritu badira ere, bi izen aipatu behar: Patricia Morales 14 urterekin Gipuzkoako hirugarren karateka onena izan zen eta Iban Galan 11 urterekin bigarren onena bere mailan. Seniorretan berriz, taldekako sarian bigarren tokia eskuratu zuen Arrasatek. 25 taldeen artean bigarren onena izanik.

Elena Atienza

“Pasarela”ko arrasatearra

Traspasos konpainiak bihar Arrasaten eskainiko duen “Pasarela” antzezlan berrian modelo papera egiten du Elena Atienza arrasatearra. Madrilen Arte Dramatikoko ikasketak egin eta Japonian urtebete lanean pasatu ondoren, neska hau lehenengo aldiz agertuko da herriarren aurrean. Gogoz baina urduri dagoela aitortzen du.

— Nola eta noiz hasi zinen antzerkigintzan?

— Institutuko antzerki taldean eman nituen lehen pausoak. UBU amaitu eta bi urte geroago, Madril joan nintzen Arte Dramatikoa ikastera. Lau urte pasa nituen han, diplomatura atera arte. Gero Arrasatera bueltatu eta hemen hiru hilabete pasatu ondoren Japoniara joan nintzen lanera urte baterako. Handik bueltatu eta Traspasos konpainian sartu nintzen “Pasarela” antzezlan egiteko. Horretan nabil orain.

— Zer lan egin zenuen Japonian?

— Oso lan komertziala izan zen. Japoniako enpresa batek bultzatutako proiektua izan zen. Han parke tematiko asko dago eta Japoniako hobbyrik handiena parke tematiko horietara joatea dela esan daiteke. Parke tematiko bakoitzak herrialde bat ordezkatzeko du eta ni Espai-



niakora joan nintzen. Froga batzuk egin zituzten Madril, Bartzelona eta Sevillan 80 pertsona kontratatzeko eta hartu egin ninduten. Abeslariak, antzerkilariak, dantzariak, era guztietako jendea joan ginen. Parke tematiko hartan parodiak, dantza espainiarrak, kabalगतak eta beste mila gauza egiten genituen. Oso esperientzia ona izan zen, erronkarik handiena ikus-entzulego berri baten aurrean ondo moldatzea izan zen eta.

— Nola heldu zinen Traspasos konpainiara?

— “Pasarela” antzezlanerako aktorea frogak antolatuz zituzten eta aurkeztu egin nintzen. Konpainia honek egiten duen lehen antzerki obra da hau, aurrez, dantza garai-kideko beste asko egin dituzte eta. Zorteak izan nuen eta hartu egin ninduten. Urrian entsaiokekin hasi eta urtarrilean Gasteizen estrenatu genuen. Orain bira egiten ari gara Euskal Herrian.

— Modelo baten papera betetzen duzu obran. Zer zailtasun izan du horrek zuretzat?

— Obrako antzerkilari guztientzat izan da zaila antzezlan hau, aktoreak eta dantzariak baikara obrako antzerkilariak. Aktoreak dantzatu egin behar izaten dugu obran eta dantzariak interpretatu. Zaila irudituko zait hori.

— Zapatuan lehenengo aldiz agertuko zara Arrasaten jendearrean. Urduri?

— Hasieran, obra hemen antzeztuko genuela jakin nuenean poz handia hartu nuen. Orain berriz, jendearren iriztiaren beldur naiz.

*Japoniatik bueltan, urritik dabil
arrasatear hau Gasteizko
“Traspasos” konpainian*

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



Leber Tapizariak

- Altzari klasiko eta modernoak
- Konponketa eta tapizatutak
- Tapizagintza orokorrean

TAILERRA: Urteaga kalea, 6 behe. Tfnoa: 76 50 37 • BERGARA
HELBIDEA: Olarte kalea, 16. Tfnoa: 79 01 18 • ARRASATE

Maria Jesus Vazquezen eskulanak Monterronen

Maria Jesus Vazquezek eskulan erakusketa jarriko du astelehenean maiatzaren 5era arte Monterronen. Erakusketa horretan bere ikasleek egindako eskulanak ikusi ahal izango dira, hala nola, egurrez, marmolinaz, telaz, porzelanaz nahiz buztinez egindako gauzak eta ispiluak, beirak eta estañozko koadroak.

Emakume hau aspaldi hasi zen eskulan eskolak ematen eta gaur egun, 50 ikasle ingururi erakusten die. Tailerra bere etxean dauka baina Abaroan ere erakusten die jubilatuei eskulanak egiten. Bere lanbidea asko maite du eta honez gero bere hiru alabei ere erakutsi die berak dakizkien teknikak. Esaten duenez, "harro nago nire alabekin, oso eskulan politikak eta kalitatezkoak egiten dituzte eta".

Maria Jesusek esaten duenez, eskulanak egitea terapia bat ere bada eta arazo pertsonalak izan dituen jende asko omen dago berarekin ikasten. Lanetik irten eta eskulanak egiten ikastera joaten den ikasle asko ditu ere Maria



Maria Jesus Vazquez.

Jesusek, azkenean, estresa arintzeko eta laneko arazok ahazteko modu ona da eskulanak egitea eta.

Era guztietako eskulanak egiten jakitez gain, Maria Jesusek gehien gustatzen zaiona oleoa margotzea dela aitortzen du, baina horretarako denbora asko ez due-

nez, berak egindako bi oleo baino ez ditu etxean.

Emakume honek erakusketa asko jarri du Monterronen azken urte hauetan zehar, baita Abaroan ere. Datorren astelehenean zabalduko den berri horretara jende asko joatea gustatuko litzaiokela esaten du.

LABURRAK

Egonaldiak familia euskaldunetan

HABEk antolatzen duen "Egonaldiak Familia Euskaldunetan" izeneko plangintzan izena emateko epea zabalik dago.

Plangintza honek euskara ikasten ari direnei hizkuntza landu eta hobetzeko aukera ematea da. Etxean ikasleren bat hartu nahi duen familiak 4 kidekoa izan behar du gutxienez, eta %70tik gorako euskaldun-kopurua duten udalerrietan bizi. Egonaldiak uztaileta eta iraila bitartean egingo dira eta familia bakoitzak gehienez ere ikasle bat hartu ahal izango du. Ikasleak logela bat izango du beretzat eta familiak ahaleginak egin beharko ditu ikasleak familiaren eguneroko bizimoduan parte har dezan. Familiak, ordainetan, hilean 70.000 pezeta jasoko ditu.

Programa honetan parte hartu nahi duten familiek apirilaren 27ra arteko epea daukate eskaera egiteko. Eskabideak egun hori baino lehenago aurkeztu behar dira HABEko bulego nagusian, Vitoria-Gasteiz kalea, 3, Ondarreta, Donostia.



PARDO estetika zentrua

ARGIZARIZKO DEPILAZIOA

10 saiogatik orain 1 dohan

Iparragirre Enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎ 79 52 17 ARRASATE

SOLARIUMA DUTXAREKIN

**MAITZEAN
EGUERTETAN ERE
ZABALIK!**



*Gertatu zure
azala
lehenengo
eguzki-izpiak
hartzeko.*

CRISTINA GARCIAANDIA Doktoreak

jakinarazten dizue


DERMATOLOGIA KONTSULTA BERRIA

zabalduta duela

Arrasaten

Centro Médico Udalaiz (79 44 22)

Ferrerias, 56 • ARRASATE



akina batek lehenengoz ikusi-ko zuen zartzuela bat joan den asteko Amaiako emanaldian, baina lehenago ere egin izan dira behin baino gehiagotan.

Argazia 1959. urtean aterata dago, Katuska zartzuela-ren emanaldian. Hura bezala, beste asko ere antzeztu ziren Arrasaten: El Caserio, Viento Sur, La tabernera del puerto, Los Gavilanes etab. Kantatzera

Madrilgo Teatro Eguidanos etortzen zen, eta hemen 6 hilabete inguru pasa zituen, Zal-dibarren karpa handia jarri ondoren. Esaten dutenez, gobernuak ordainduta ibiltzen ziren herriz-herri.

Bilbo eta Gasteizko orkestrak ere etortzen ziren, Arzamenditarren zuzendaritzapean. Ideal zineman, Gurean, Verduri Dancing-en, eta Zentro-

an behin baino gehiagotan ikusi ahal izan ziren zartzuolak.

Argazia, esan bezala Katuskarena da, eta bertan agertzen direnak honako hauek: Ezezaguna, **Simon Arregi**, **Arantxa Villar**, **Amaia Gorroñoigoitia**, **Kontxita Zarraoa**, **Fernando Aranburu**, **Jose Antonio Gonzalez**, eta **Jose Antonio Altuna**.



Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almagena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tfnoa: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

UGARTE

Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82


ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Tallerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabiloia • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE



ILEAPAINDEGIA

Gorbea, 2 Behea
Tfnoa: 77 09 44
ARETXABAETA

ZIRT-ZART
aste bereziak



- **Astelenetik Ostegunera:** 25 urte baino gazteagoi %15eko beherapena.
- **Asteartea:** Gizonen mozketak **1.200 pta.**
- **Asteazkena:** Ezkongaiarako probak **2.900 pta.**
- **Osteguna:** Bezero berriei berregokitzapen **tratamendua doan.** (Egoera txarrean den ile inguruko osabidea berehalako emaitzekin).

Ile-inguruko egoeraren hobetze aholkularitza nahiz aholku teknikoa ematen da.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**




Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• ESAERA •

“Herriari apaizak,
militarrak, medikuak eta
maestroak eman aurretik
komenigarria izango
litzateke gosez hiltzen ez
dagoen jakitea.


TOLSTOI

• JEROGLIFIKOA •



Kontuz...

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Makilaz jo. 9. Idazki baten laburpen txikia. 10. Musika-eskalako 2. nota. 11. Ahabi. 12. Izatea duena. 15. Janari. 16. Animalia batzuen oihu luze eta tristea. 17. Euskal Idazleen Elkarte. 18. Konparaketa egiteko aditzondoa. 19. Ur jauziak EEBB eta Kanadako mugan.

Bertikalak 1. Gomez, ipuinzale arrasatearra. 2. Futboleant atea zaintzen duena. 3. Zerbait erretzean sortzen da. 4. Nafarroako oihana. 5. Berotzeko leku. 6. Nekedura. 7. (Ald.) Idi hitz elkartuean. 8. Nafarroako mendia 651 m. 13. Kanpazar bideko inzerazio planta. 14. Ulertu aditzaren infinitiboa. 18. Zilarra.

• HOROSKOPOA •

Aries Ume aurpegi horrekin nor engainatuko duzu?

Taurus Sutondoan jartzen zarenean, aitonatxoa dirudizu.

Gemini Jan eta jan, munduko lodiena izango zara laster.

Cancer Familiak ez du zugan itxaropenik galdu oraindik.

Leo Egizu beti on, ez jakin arren non.

Virgo Ahal den artean itxaropena gorde eta ez etsi.

Libra Bihar egun polita biziko duzu baina etzi oso txarra.

Scorpio Noizean behin sudur zuloak garbitu, mari zikin!

Sagitaris Gutxien espero duzun ondokoa zuri begira bizi da.


Capricorn Gezurrak esaten dituzula susmatzen dute lagunek.

Aquarius Bihotzekoak emango dizu hain urduri jarraitzen baduzu.

Piscis Telebistako aurkezle izateko balio duzu. Bazenekien?

Etxe-Aundi


Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorní

TELEBISTAREN TXOKOA



Santamaina elkartean untxia

Datorren ostegunean Arrasateko beste elkarte bat ezagutzeko aukera izango da, oraingoan, Santamaina elkarte. Orain dela zazpi urte sortu zen elkarte hau, aurrez taberna

izan baitzen. Bernardo Aranzabalek, Santamainako lehendakariak elkarteari buruzko hainbat gorabehera kontatu ondoren, Secundino Alonso sukaldariak untxia prestatuko du.

KOMIKIA



Zoguzar.

PROGRAMAZIOA



19 Ostirala

13.30etan Albiste aurrerapena
13.35etan Elkartean (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak

9.30etan Astebete
Gai: 96ko udal aurrekontuak Asteleheneko plenoaren laburpena eta ondoren HBk eta EB-IUK emandako prentsaurrekoa aztergai.

22 Astelehena

13.30etan Albiste aurrerapena
13.35etan Astebete (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
21.30etan Mondrasport

23 Asteartea

13.30etan Albiste aurrerapena
13.35etan Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
21.30etan Barrelekaixoka

24 Asteazkena

Ez da programaziorik izango

25 Osteguna

13.30etan Albiste aurrerapena
13.35etan Zinea (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
21.30etan Elkartean Santamaina

26 Ostirala

13.30etan Albiste aurrerapena
13.35etan Elkartean (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan Berriak
21.30etan Astebete

SOLUZIOAK

Horontalakek: 1. Makilau, 9. Ate-
15. Jaki, 16. Uta, 17. EIE, 18. Ate-
19. Niagara.

Bertikalak: 1. Marje, 2. Ateazun, 3. Ke, 4. Irati, 5. Labe, 6. Akidura, 7. (Aid.), 8. Umanu, 13. Akei, 14. Uler, 18. Ag.

Jeroglifikoak: Begia ubelzean.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxe gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxe ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

Etxebizitzak

- **Laredon uztailean apartamentua alokagai.** Tfnoa: 79 52 80.
- **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73
- **Pisua alokagai Arrasateko erdialdean.** Tfnoa: 72 46 17. Arratsaldez.
- **Etxebizitza salgai Makatzenan,** sarrera, sukaldia, jangela-egongela, komuna eta hiru logela. Berogailu eta ganbaraz. Tfnoa: 79 79 86. Arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Laukalean pisua salgai.** Amuebladora Mondragonesa parean. Tfnoa: 71 40 19.
- **Apartamentua salgai Torreveijan,** hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 77 03 85.
- **Bi edo hiru lagun behar dira pisua osatzeko.** Tfnoa: 65 52 98.
- **Laredon apartamentua alokagai.** Tfnoa: 79 31 47.
- **Playa de San Juanen (Alicante)** apartamentua alokatzen da uztailearen lehenengo hamabostaldian. Tfnoa: 79 49 98.

Lana

- **Enpresa zientzietan lizentziatua klase partikularrak emateko prest.** Tfnoa: 79 06 39.
- **Ingenierutzako ikasle bat euskarazko klase partikularrak emateko prest.** OHO, BBB eta UBI. Tfnoa: 79 74 18
- **Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Dei egin astelehenerdik ostegunera gaueko 8.30etatik 10etara. Tfnoa: 79 66 55.
- **Klase partikularrak ematen dira erdaraz.** EGB, BUP, COU, FP, FP II. eta Pascal programa.

mazioarenak. Tfnoa: 79 27 88.

- **Neska gaztea hostalaritzan eta umeak zaintzen esperientziaduna lan egiteko prest.** Tfnoa: 79 62 06.
- **36 urteko emakumea pertsona zaharrak gauez zaintzeko gertu.** Tfnoa: 79 44 62. Goizez edo arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Ileapaindegian estilista profesionala behar da,** ostegun, ostiral eta larunbatetan lan egiteko. Tfnoa: 77 09 44. Dei egin goizeko 10etatik arratsaldeko 4ak arte.
- **Euskarazko klase partikularrak behar ditut.** Tfnoa: 79 98 28. Mirian.
- **Andra gerontologian diplomaduna eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu.** Tfnoa: 79 34 53.
- **Injinerutzako ikasleak,** matematika, fisika eta marrazkiko klase partikularrak emango litzuke. Tfnoa: 79 16 19.

- **OHO eta REMeko ikasleei ingeleseko klase partikularrak emateko gertu.** Tfnoa: 79 50 99
- **Frantseseko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 50 99.

- **Hogei urteko neska lan egingo luke taberna, denda edo etxeetan.** Tfnoa: 79 37 68.

- **Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu Dukiena jatetxean.** Tfnoa: (945) 44 50 86.

- **Idazkaritzan diplomadunak lanak ordenadorez pasako litzuke.** Tfnoa: 79 31 47.

Salerosketak

- **R-5 salgai.** Bost atekoa eta 10 urte ditu. 90.000 pta. Tfnoa: (94) 681 98 65. Gauez.
- **"Documentos", "Enciclopedia Larousse", "Enciclopedia Vasca" eta "Historia de Euskal Herria" salgai.** Tfnoa: 79 59 43.

- **Yamaha Super Tenere 750 salgai** prezio interesgarrian. Goio. Tfnoa: 79 80 61. Arratsaldez.
- **Nikon AF, 70-210 mm.** objetiboa salgai. Parasol eta filtroarekin. Tfnoa: 76 52 31. Jesus. Gauez.
- **Bi ardi txakur kume salgai.** Tfnoa: 79 35 68.
- **Biondi konpetiziorako bizikleta salgai.** Shimano konponenteak. Egoera ona. 50.000 pta. Tfnoa: 79 49 30.
- **Volkswagen 1.200 eskarabajoa salgai.** Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tfnoa: 77 07 75. Gauean.
- **Seat Ibiza, SS-Z salgai** 150.000 pta.tan. Tfnoa: 79 97 38.
- **Kanpingean joateko bost lagunendako karabana egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 18 60.
- **Seat Ronda G 5 CL salgai.** Bost atekoa. 12 urte ditu (SS-S). 83.000 km. besterik ez. Oso oso ondo dago. Interesatuak: 79 09 52.
- **R-5 salgai.** ITVa uztailean pasatua. 75.000 pta. Tfnoa: 79 38 97.

Denetarik

- **Udalatik Udalaizerako bidean erlojuua galdu nuen joan zen astean.** Norbaitek aurkitu badu dei dezadake 79 92 09 tfnoa. Eskertuko da.
- **Joan zer martxoak 9-10 Otazako Hika ikastaroan AEKko "Taldea dinamika" liburua galdu genuen.** Honen berri daldin baduzu dei egin 79 03 69 tfnora.
- **Citroen markako kotxeko giltzak aurkitu dira.** Zureak badira pasa Arrasate Pressetik.
- **Gaueko 7etan Bilbora** norbait badoa dei deza 79 14 11 tfnora. Ane.
- **Emakumearen neurri handiko arropa (48-52 tailak) eman egiten da.** Egoera onean dago. Tfnoa: 79 37 68.

Aste Gazte

Lana

- **Aiako Udalak,** liburutegiko arduradun lanpostu bat kaleratuko du. Eskola-ziurtagiria edo balio-kidea izatea eskatzen da. Epea: maiatzak 7.
- **Astigaragako Udalak,** administrari laguntzaile lanpostu bat deitu du. Eskola-ziurtagiria, LHI edo balio-kidea izatea eskatzen da. 2. hizkuntz eskakizuna. Epea: maiatzak 7.

Bekak

- **Kultura eta Euskara Departamentuak 1996.** urterako bekak, laguntzak eta poltsak emateko deia egin du. Arloak: 1) musika, dan-

tza, antzerkia, ikusentzutekoak, arte plastikoak eta errestaurazioa ikasketak egiteko bekak eta lehen daudenak luzatzeko. 2) Arte plastiko, argazkigintza, literatur sorkuntza eta musika konposaketa bekak. 3) "Nicanor Zabaleta" musika beka. 4) Historia ikerketako bi beka. 5) Bideografia sorkuntzarako laguntzak. 6) Arte plastiko eta ikus entzutekoen arloan arte sorkuntzarako laguntzak. Guzti hauen epea: maiatzak 31. 7) Arte orloko iraupen laburreko ihardueta joan edo horietan parte hartzeko, laguntza poltsak. Epea: ekainak, 30. 8) "Musika Konposizioko IV. Pablo Sorozabal Lehiaketa". Epea:

urtarrilak 30.

- **BBBko 3. mailako, UBIko, LOGSE batxilergoetako, IEEko 2. zikloko, II. LHko eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloetako ikasleei zuzenduta,** Alemanian, Kanadan, Estatu Batuetan, Frantzia, Ingalaterran eta Irlandan, uda partean frantseseko, alemanierako eta ingeleseko ikastaroak egiteko beken deialdia. 95-96 ikasturte honetan deialdi orokorreko bekarior izatea derrigorrezkoa da. Epea: maiatzak 13.

Ikastaroak

- **Hastapen mailako Argazki Ikastaroa** larunbat goizetan. Maiatzaren 1 leian hasita ekainaren 15era arte. Orduetgia: 10etatik 13.30etara. Prezioa: 3.000 pta. (1.500 pta ikasle eta langabetuentzat). Plaza mugatuak. Izenak: Gazte Bulegoa.


"Bere etxera itzultzen da, bere zahartasun eta bere miseria han ezkutatzeko eta gazteriak oraindik berarekin konpartitzen duen guztiaz pentsatzen du".

KONSTANTINO KAVAFIS



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

• TELEBISTAREN TXOKOA •



Santamaina elkartearen untzia

Datorren ostegunean Arrasateko beste elkarte bat ezagutzeko aukera izango da, oraingoan, Santamaina elkarte. Orain dela zazpi urte sortu zen elkarte hau, aurrez taberna

izan baitzen. Bernardo Aranzabalek, Santamainako lehendakariak elkarteari buruzko hainbat gorabehera kontatu ondoren, Secundino Alonso sukaldariak untzia prestatuko du.

• KOMIKIA •



Zagazar.

• PROGRAMAZIOA •



19 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Elkartean (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

9.30etan
Astebete
Gaia: 96ko udal aurrekontuak
Asteleheneko plenoaren laburpena eta ondoren HBk eta EB-IUK emandako prentsaurrekoa aztergai.

22 Astelehena

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Astebete (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

23 Asteartea

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

24 Asteazkena

Ez da programaziorik izango

25 Osteguna

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Zinea (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Elkartean
Santamaina

26 Ostirala

13.30etan
Albiste aurrerapena
13.35etan
Elkartean (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

• SOLUZIOAK •

Begia ubeltzean.
Jergofitkoka:
18. Ag.
(Ald.) Tl. 8. Uman. 13. Akel. 14. Uter.
3. Ke. 4. Irati. 5. Labe. 6. Akidura. 7.
Berrikalk: 1. Martije. 2. Alezain.
19. Niagara.

Horizontalak: 1. Makilatu. 9. Aie-
rakin. 10. Re. 11. Aht. 12. Izatedun.
15. Jaki. 16. Ulu. 17. EIE. 18. Are.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeke gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxeke ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

Etxebizitzak

- **Laredon uztailan apartamentua alokagai.** Tfnoa: 79 52 80.
- **Bi ohedun gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73
- **Pisua alokagai Arrasateko erdialdean.** Tfnoa: 72 46 17. Arratsaldez.
- **Etxebizitza salgai Makatzenan,** sarrera, sukaldia, jangela-egongela, komuna eta hiru logela. Berogailu eta ganbaraz. Tfnoa: 79 79 86. Arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Laukaleen pisua salgai.** Amuebladora Mondragonesa parean. Tfnoa: 71 40 19.
- **Apartamentua salgai Torreveijan,** hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 77 03 85.
- **Bi edo hiru lagun behar dira pisua osatzeko.** Tfnoa: 65 52 98.
- **Laredon apartamentua alokagai.** Tfnoa: 79 31 47.
- **Playa de San Juanen (Alicante)** apartamentua alokatzen da uztailaren lehenengo hamabostaldian. Tfnoa: 79 49 98.

Lana

- **Enpresa zientzietan lizentziatua klase partikularrak emateko prest.** Tfnoa: 79 06 39.
- **Ingenierutzako ikasle bat** euskarazko klase partikularrak emateko prest. OHO, BBB eta UBI. Tfnoa: 79 74 18
- **Neska euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin astelehenerdik ostegunera gaueko 8.30etatik 10etara. Tfnoa: 79 66 55.
- **Klase partikularrak ematen dira** erdaraz. EGB, BUP, COU, FP, FP II. eta Pascal programa

mazioarenak. Tfnoa: 79 27 88.

- **Neska gaztea hostalaritzan** eta umeak zaintzen esperientziaduna lan egiteko prest. Tfnoa: 79 62 06.
- **36 urteko emakumea pertsona zaharrak** gauez zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 44 62. Goizez edo arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Ileapaindegian estilista profesionala** behar da, ostegun, ostiral eta larunbatetan lan egiteko. Tfnoa: 77 09 44. Dei egin goizeko 10etatik arratsaldeko 4ak arte.
- **Euskarazko klase partikularrak behar ditut.** Tfnoa: 79 98 28. Mirian.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.
- **Injinerutzako ikasleak,** matematika, fisika eta marrazkiko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 16 19.
- **OHO eta REMeko ikasleei ingeleseko klase partikularrak emateko gertu.** Tfnoa: 79 50 99

• **Frantseseko klase partikularrak** emango nituzke. Tfnoa: 79 50 99.

• **Hogei urteko neska lan egingo luke** taberna, denda edo etxeetan. Tfnoa: 79 37 68.

• **Taberna lanetarako neska** euskalduna behar dugu Dukiena jatetxean. Tfnoa: (945) 44 50 86.

• **Idazkaritzan diplomadunak lanak** ordenadorez pasako lituzke. Tfnoa: 79 31 47.

Salerosketak

- **R-5 salgai.** Bost atekoa eta 10 urte ditu. 90.000 pta. Tfnoa: (94) 681 98 65. Gauez.
- **"Documentos", "Enciclopedia Larousse", "Enciclopedia Vasca" eta "Historia de Euskal Herria"** salgai. Tfnoa: 79 59 43.

• **Yamaha Super Tenere 750** salgai prezio interesgarrian. Goio. Tfnoa: 79 80 61. Arratsaldez.

• **Nikon AF, 70-210 mm.** objektiboa salgai. Parasol eta filtroarekin. Tfnoa: 76 52 31. Jesus. Gauez.

• **Bi ardi txakur kume salgai.** Tfnoa: 79 35 68.

• **Biondi konpetiziorako bizikleta salgai.** Shimano konponenteak. Egoera ona. 50.000 pta. Tfnoa: 79 49 30.

• **Volkswagen 1.200** eskarabajoa salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tfnoa: 77 07 75. Gauetan.

• **Seat Ibiza, SS-Z salgai** 150.000 pta.tan. Tfnoa: 79 97 38.

• **Kanpingean joateko bost** lagunendako karabana egoera onean salgai. Tfnoa: 79 18 60.

• **Seat Ronda G 5 CL salgai.** Bost atekoa. 12 urte ditu (SS-S). 83.000 km. besterik ez. Oso oso ondo dago. Interesatuak: 79 09 52.

• **R-5 salgai.** ITVa uztailan pasatua. 75.000 pta. Tfnoa: 79 38 97.

Denetarik

• **Udalatik Udalaizerako** bidean erlojua galdu nuen joan zen astean. Norbaitek aurkitu badu dei dezadake 79 92 09 tfnoa. Eskertuko da.

• **Joan zer martxoak 9-10 Otazako Hika ikastaroan** AEKko "Talde dinamika" liburua galdu genuen. Honen berri daldin baduzu dei egin 79 03 69 tfnora.

• **Citroen markako kotxeko giltzak** aurkitu dira. Zureak badira pasa Arrasate Pressetik.

• **Gaueko 7etan Bilbora** norbait badoa dei deza 79 14 11 tfnora. Ane.

• **Emakumearen neurri handiko arropa** (48-52 tailak) eman egiten da. Egoera onean dago. Tfnoa: 79 37 68.

Aste Gazte

Lana

- Aiako Udalak, liburutegiko arduradun lanpostu bat kaleratuko du. Eskola-ziurtagiria edo balio-kidea izatea eskatzen da. Epea: maiatzak 7.
- Astigarragako Udalak, administrari laguntzaile lanpostu bat deitu du. Eskola-ziurtagiria, LHI edo balio-kidea izatea eskatzen da. 2. hizkuntz eskakizuna. Epea: maiatzak 7.

Bekak

- Kultura eta Euskara Departamentuak 1996. urterako bekak, laguntzak eta poltsak emateko deia egin du. Arloak: 1) musika, dan-

tza, antzerkia, ikusentzutekoak, arte plastikoak eta errestaurazioa ikasketak egiteko bekak eta lehen daudenak luzatzeko. 2) Arte plastiko, argazkigintza, literatur sorkuntza eta musika konposaketa bekak. 3) "Nicanor Zabaleta" musika beka. 4) Historia ikerketako bi beka. 5) Bideografia sorkuntzarako laguntzak. 6) Arte plastiko eta ikus entzutekoen arloan arte sorkuntzarako laguntzak. Guzti hauen epea: maiatzak 31. 7) Arte arloko iraupen laburreko iharduetara joan edo horietan parte hartzeko, laguntza poltsak. Epea: ekainak, 30. 8) "Musika Konposizioko IV. Pablo Sorozabal Lehiaketa". Epea:

urtarrilak 30.

• BBBko 3. mailako, UBIko, LOGSE batxilergoetako, IEEko 2. zikloko, II. LHko eta Goi Mailako Prestakuntza Zikloetako ikasleei zuzenduta, Alemanian, Kandan, Estatu Batuetan, Frantzia, Ingalaterran eta Irlandan, udartearen frantseseko, alemanierako eta ingeleseko ikastaroak egiteko beken deialdia. 95-96 ikasturte honetan deialdi orokorreko bekarior izatea derrigorrezkoa da. Epea: maiatzak 13.

Ikastaroak

• Hastapen mailako Argazki Ikastaroa larunbat goizetan. Maiatzaren 1 leian hasita ekainaren 15era arte. Ordutegia: 10etatik 13.30etara. Prezioa: 3.000 pta. (1.500 pta ikasle eta langabetuentzat). Plaza mugatuak. Izenak: Gazte Bulegoa.

"Bere etxera itzultzen da, bere zahartasun eta bere miseria han ezkutatzeko eta gazteriak oraindik berarekin konpartitzen duen guztiaz pentsatzen du".

KONSTANTINO KAVAFIS



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

EZ DAGO KONPARAZIORIK



omu

keramikak

BILTEGIA ETA BULEGOAK: Meatzerreka, 6 • Tfnoa/Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
ERAKUSKETA: Otorora, 1 behea • Tfnoa: 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



FAGOR



SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42

IRABAZI

10.000.000

zure AENOR agiridun sukaldea erosiz IKER-en.

PTA.